# SSIFF 71

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

# **Memoria** 2023

sansebastianfestival.com

#71SSIFF

Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor

Media Partner

Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions

SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor

Media Partner

Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions

SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

71

# Aurkibidea


**Sarrera** 4

**Zinemaldia datuetan** 5

**Beste zinema-jaialdi, erakunde eta entitate batzuekin lankidetza** 9

**Industria zinematografikoaren beste jaialdi eta hitzordu batzuetan parte hartzea** 12

**Filmak** 15

**Lehiazko sailak** 15

- Sail Ofiziala 16
- New Directors 18
- Horizontes Latinos 20
- Zabaltegi-Tabakalera 22
- Perlak 24
- Nest 26
- Culinary Zinema 28
- Eusko Label 30

**Lehiazkoak ez diren sailak** 33

- Made in Spain 34
- Zinemira 36
- Film sorpresa 38
- Belodromoa 40
- Ikastetxeak Belodromoan 42
- Haurrentzako zinema 44
- Atzerabegirakoa - Hiroshi Teshigahara 46
- Klasikoak 48

**Galak** 51

- Donostia Saria emanaldia 52
- RTVE Galak 54
- Euskal Zinema Gala 56
- EiTB Gala 58
- FIPRESCI Sari Nagusia 60

**Industria** 62

**Jarduerak** 64

- Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa 64
- IX Ikusmira berriak 66
- WIP Latam 67
- WIP Europa 68
- Spanish Screenings: Financing & Tech 69
- Zinemaldia & Technology - Zinemaldia Startup Challenge 72

**Lankidetzak** 73

- Proyecta – Ventana Sur 73
- Lau Haizetara XIX. Dokumentalen Koprodukzio Foroa 74
- Iberoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdien topaketa 76
- Focus on Brasil 77

**Tresnak** 79

- Webguneko Industria atala 79
- Bideoteka 79

**Epaimahaiak** 80

- Epaimahai Ofiziala 81
- Kutxabank-New Directors Sariaren Epaimahaia 82
- Horizontes Sariaren Epaimahaia 82
- Zabaltegi-Tabakalera Sariaren Epaimahaia 82
- Nest The Mediapro Studio Sariaren Epaimahaia 82
- Culinary Zinema Film Onenaren Sariaren Epaimahaia 83
- Eusko Label Sariaren Epaimahaia 83
- Euskal Zinemaren Irizar Sariaren Epaimahaia 83
- Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Proiektu Onenarentzako Sariaren Epaimahaia 83
- RTVE-Beste Begirada Sariaren Epaimahaia 84
- Espainiako Lankidetza Sariaren Epaimahaia 84
- Euskadi 2030 Basque Country Agenda Sariaren Epaimahaia 84
- Dunia Ayaso Sariaren Epaimahaia 84

**Palmaresa** 85

- Sari ofizialak - FIAPF 86
- Beste sari ofizial batzuk 88
- Industria Sariak 91
- Beste sari batzuk 93
- Sari paraleloak 93
- Ohorezko sariak 94

**Hizketaldiak** 97

**Z365, urte osoko Zinemaldia** 108

**71. edizioko 71 irudi** 120

# Sarrera

Donostia Zinemaldiaren 71. edizioaren memorian bildutako lehen ondorioetako batek berretsi egiten du ikusleak pixkanaka-pixkanaka zinema-aretoetara itzultzen ari direla. 158.000 ikus-entzuletik gora (iaz baino 5.400 gehiago) izan dira edizio honetako filmen emanaldietan (200 film baino gehiago). Beste kopuru batek agerian uzten du industria zinematografikoa bizia dela, zinema-jaialdietan presentzialtasuna aktiboa dela eta Donostia Zinemaldiak posizionamendu ona duela: lehen aldiz, 5.000 akreditaziodunen kopurua gainditu du Zinemaldiak, hau da, iaz baino ia %10 gehiago (iazkoa errekorra izan zen jada), eta %78 2010az geroztik (hots, egungo zuzendaritza-taldea sartu zenetik).

Duela hamabi urte –Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa sortu zenean– hasitako hazkunde-bide horretan lagungarriak izan dira, 2023an, honako hitzordu hauek: Spanish Screenings: Financing & Tech ekimenaren bigarren edizioa eta industriako talentu, zinemagile, programatzaile eta profesional berriak bitzen dituzten sareak, Z365, urte osoko Zinemaldia ekimenak ezarriak (Z365en bidez Kabia eta 2deo Topagunea ekimenak gauzatu ziren 2023an lehendabizikoz).

Zinemaldiaren barnean urte osoan zehar lana hobekien ikusarazten duen ekimenetako bat Ikusmira Berriak da. Zortzi hilabetez zinemagileei laguntzen dien egonaldi-programa bat da Ikusmira Berriak, eta, hamargarren edizioa abiaraztear dela, 2015etik ereindakoa jasotzen ari da: 2023an Jaione Cambordak Urrezko Maskorra beretu du, Raven Jacksonen lana Sundancen eta Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialean hautatu da, eta Elena Martínek sari bat lortu du Cannesko Quinzaine des Cinéastes atalean.

Ez da kasualitatea hiru zuzendari horiek emakumeak izatea, Zinemaldiak berdintasunaren aldeko apustu kontzientea egiten baitu proiektu-faseko lanetan eta work-in-progressetan. Hurrengo asteotan argitaratuko den genero-identifikazioko txostenari esker, ondorio espezifikoagoak atera ahalko dira zuzendarien, ekoizleen, gidoilarien, argazki-zuzendarien, muntatzaileen, konpositoreen, soinu-teknikarien eta arte-zuzendarien egoerari buruz.

71. edizioan film bat programaziotik ateratzeko eskaera jaso da, *No me llame Ternera*, hain zuzen ere. Zinemaldiak ez du eskakizun horren aurrean zalantzarik izan, uste osoa baitu film bat kritikatzeko lehenik ikusi egin behar dela, eta ez alderantziz. Zinemaldiak behin eta berriz eman du aditzera adierazpen-askatasunaren aldekoa dela eta zinemak eraldaketarako gaitasun handia duela, eta 2024an ikus-entzuleei, hedabideei, zinemagileei eta industria zinematografikoari ahalik eta programaziorik onena, elkarrizketa garrantzitsuak eta topaguneak eskaintzeko lanean dihardu.

# Zinemaldia datuetan

**158.194** ikusle

**238** film

- 58 herrialde
- Munduko **58** estreinaldi
- Nazioarteko **7** estreinaldi
- Europako **11** estreinaldi
- Espainiako **53** estreinaldi

**684** emanaldi

**4.207** film ikusi ditu hautespen-batzordeak

**5.020** akreditatu

**981** kazetari

- 538 hedabide

**2.216** industriako profesional

- 43k online parte hartu zuten

**1.823** bestelako akreditatu: lantaldeak, zinema eskolak, programatzaileak, kultur erakundeak …

**108** aurkezpen eta solasaldi

**43** film aurkeztu dira Kafea espazioan

**8** hizketaldi eta eskola magistral (Albert Serra, Christian Petzold, Kitty Green, Deborah Williams, Artur Tort, C.Tangana & Little Spain, Raven Jackson, Lila Avilés)

**69** prentsaurreko (53 Zinemaldian zehar)

**833.857** bisita Zinemaldiaren webgunean

**477.965** bisitari bakar

**3.182.565** ikusitako orrialde

**4 minutuko** batez besteko iraupena saioko

**5 minutu eta 49 segunduko** batez besteko iraupena saioko Zinemaldian zehar

**96.600** jarraitzaile Twitterren

**102.000** Instagramen

**62.000** Facebooken

**12.800** TikToken

## Bertaratzea

| | 2010 | 2022 | 2023 | 2010ekiko aldaketa | | 2022rekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| **Ikusleak** | 155.060 | 152.730 | 158.194 | 3.134 | %2 | 5.464 | %3,6 |
| **Akreditatuak** | 2.820 | 4.587 | 5.020 | 2.200 | %78 | 433 | %9,4 |
| **Bildutako dirua** | 691.930 | 935.545 | 977.027 | 285.097 | %41,2 | 41.482 | %4,4 |

(*) Diru-bilketaren zifretan BEZa sartuta dago. 2010ean, %18ko BEZ orokorra aplikatzen zen eta, txarteldegian, %8koa. 2020. urtetik aurrera, BEZ orokorra %21ekoa da eta lehiatilakoa, %10ekoa.

## Akreditazioak

| | 2010 | 2022 | 2023 | 2010ekiko aldaketa | | 2022rekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| **Kazetariak** | 1.012 | 967 | 981 | -31 | %-3,1 | 14 | %1,4 |
| **Espainiako kazetariak** | 814 | 775 | 789 | -25 | %-3,1 | 14 | %1,8 |
| **Nazioarteko kazetariak** | 198 | 192 | 192 | -6 | %-3 | 0 | %0 |
| **Hedabideak** | 516 | 537 | 538 | 22 | % 4,3 | 1 | %0,2 |
| **Espainiako hedabideak** | 331 | 382 | 379 | 48 | %14,5 | -3 | %-0,8 |
| **Nazioarteko hedabideak** | 185 | 155 | 159 | -26 | %-14,1 | 4 | %2,6 |
| **Industria*** | 984 | 2.026 | 2.216 | 1.232 | %125,2 | 190 | %9,4 |
| **Filmetako lantaldeak eta Akademia** | 824 | 1.594 | 1.823 | 999 | %121,2 | 229 | %14,4 |

(*) Akreditutako 2.216 profesionaletatik 2.173k aurrez aurre parte hartu zuten eta 43k, online.

## Films-to-Be

### Proiektuak

| Proiektuak | (*) Lehen edizioa | 2022 | 2023 | Lehen edizioarekiko aldaketa | | 2022rekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| KOPRODUKZIO FOROA: One to one bilerak | 365 | 530 | 543 | 178 | %48,8 | 13 | %2,5 |
| IKUSMIRA BERRIAK One to one bilerak | 46 | 117 | 81 | 35 | %76,1 | -36 | %-30,8 |
| ZINEMALDIA STARTUP CHALLENGE Bertutarakoak | 57 | 78 | 90 | 33 | %57,9 | 12 | %15,4 |
| SPANISH SCREENINGS: FINANCING & TECH Bertutarakoak | - | 256 | 299 | - | - | 43 | %16,8 |

(*) Koprodukzio Foroan 2012. urtea hartzen da abiapuntutzat, urte hartan hasi baitzen. Ikusmira Berriak, 2017. urtean, eta Zinemaldia Startup Challenge, 2021ean.

### Works in Progress

| Works in Progress | 2010 | 2022 | 2023 | 2010ekiko aldaketa | | 2022rekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| WIP LATAMera bertaratutakoak | 172 | 423 | 486 | 314 | %182,6 | 63 | %14,9 |
| WIP EUROPAra bertutarakoak * | - | 129 | 169 | - | - | 40 | %31 |

(*) WIP Europa programa (lehen, Glocal in Progress) 2017an sortu zen.

## Webgunea eta sare sozialak

| | | 2010 | 2022 | 2023 | 2010ekiko aldaketa | | 2022rekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| Webgunearen audientzia | Bisitak | 680.000 | 893.963 | 833.857 | 153.857 | %22,6 | -60.106 | %-6,7 |
| | Bisitari bakarrak | 410.000 | 502.592 | 477.965 | 67.965 | %16,6 | -24.627 | %-4,9 |
| | Bideo-erreprodukzioak (309) | 140.911 | 1.687.915 | 1.395.092 | 1.254.181 | %890,1 | -292.823 | %-17,3 |
| Jarraitzaileak sare sozialetan | Facebook | 3.450 | 61.000 | 62.000 | 58.550 | %1.697,1 | 1.000 | %1,6 |
| | Twitter | 2.000 | 96.400 | 96.600 | 94.600 | %4.730 | 200 | %0,2 |
| | Instagram | 530 (*) | 89.000 | 102.000 | 101.470 | %19.145,3 | 13.000 | %14,6 |
| | TikTok | - | 10.800 | 12.800 | - | - | 2.000 | %18,5 |

(*) Neurketa hau 2013. urtekoa da, Zinemaldiak Instagram kontu ofiziala ireki zuenean.

# Beste zinema-jaialdi, erakunde eta entitate batzuekin lankidetza

**AC/E (Acción Española):** PICE programa, Europako eta Latinoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdietako programatzaileen topaketa.

**AECID (Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia):** Espainiako Lankidetza Saria.

**ALÍA Alianza Industria Audiovisual:** Zinemaldia & Technology.

**ANTAVIANA Films VFX&Post Production:** Belodromoa.

**Antiguo Berri:** Film sorpresa.

**Armani Beauty:** Official Beauty Sponsor eta Perlak saila.

**ArteKino:** ArteKino nazioarteko saria – Europa Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**AUDI:** Audi Future Stories.

**Azkuna Zentroa:** Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan.

**Basque Culinary Center:** Culinary Zinema.

**Best Digital:** WIP Latam Industriaren saria, WIP Europa Industriaren saria.

**BIME:** 2deo Topagunea.

**BTeam Pictures:** WIP Europa Industria Saria.

**CAACI (Iberoamerikako Ikus-entzunezko eta Zinematografiako Agintarien Konferentzia):** DALE! saria (Desarrollo América Latina-Europa) - Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**CIMA:** Puxika Gorria / El Globo Rojo.

**Cinema do Brasil:** Focus on Brasil, Foro de Coproducción Europa-América Latina.

**Cineuropa:** Collaborator Media.

**CREAST:** Jasangarritasuna.

**Creative Europe MEDIA:** Industria Saila.

**DAMA:** Pentsamendua eta Eztabaida sailaren mahai-inguruak.

**Deadline:** Collaborator Media.

**Deluxe Content Services Spain:** WIP Latam Industria saria, WIP Europa Industria saria.

**Dolby Iberia:** WIP Latam Industria Saria, WIP Europa Industria Saria.

**Donostia International Physics Center:** Ikastetxeak Belodromoan, Zinema eta Zientzia.

**Donostiako Udala:** Donostia Hiria Publikoaren saria.

**EFAD (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkartea):** DALE! saria (Desarrollo América Latina-Europa) - Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Pentsamendua eta Eztabaida.

**EGEDA (Ikus-entzunezkoen Ekoizleentzako Zerbitzu Sozietatea):** WIP Latam onenaren Egeda Platino Industria Saria.

**EITB:** Zinemira, EiTB Gala, Euskal Zinemaren Gala.

**Elamedia Estudios Euskadi:** Elamedia Euskadi Postproduzkio Saria - Ikusmira Berriak.

**Elías Querejeta Zine Eskola:** Artxiboa, Ikusmira Berriak, ZINE, Zinemagileen arteko elkarrizketak, Kabia, José Angel Herrero-Velarde bekak.

**EPE-APV (Euskal Produktoreen Elkartea):** Zinemira saria.

**Etxepare Euskal Institutua:** Atzerabegirakoa.

**Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi:** Serieen jardunaldia.

**Europa Distribution:** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Euskadiko Filmategia:** Atzerabegirakoa, Zinemira, Zinema eta Zientzia, Ikusmira Berriak, Artxiboa.

**Euskadiko Orkestra:** Kontzertua & Proiekzioa.

# Beste zinema-jaialdi, erakunde eta entitate batzuekin lankidetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila:** Haurrentzako Zinema.

**Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila:** Industria saila, Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Zinemaldia Startup Challenge, Eusko Label saila, Euskadi Basque Country Saria, Zuzendaritzaren koktelak.

**Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia:** Euskadi Basque Country 2030 Agenda Saria, Pentsamendua eta Eztabaida.

**Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo saila:** Zinemaldiko kazetaritza-lanari aipamen berezia.

**Gehitu:** Sebastiane saria, Sebastiane Latino saria, Europa eta Latinoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdietako programatzaileen topaketa.

**Gipuzkoako Foru Aldundia:** Gipuzkoa Coopera programa, Jasangarritasuna, Zinemagileen arteko elkarrizketak.

**Golem: Donostiatik Irunera:** Golem filmak Donostia Zinemaldian.

**Grupo SPRI Taldea:** Zinemaldia Startup Challenge.

**Hispanitas:** Made in Spain

**IBAIA (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizleen Burujabeen Elkartea):** Lau Haizetara Dokumentalen Foroa, Zinemira.

**ICAA (Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua):** Espainiako Zinematografia Saria, Spanish Screenings: Financing & Tech.

**ICEX España Exportación e Inversiones: Spanish Screenings:** Financing & Tech.

**INCAA (Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Argentinako Institutua):** Proyecta – Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Gipuzkoa Coopera programa.

**Irizar:** Euskal zinemaren Irizar saria.

**Jamones Ibéricos de España:** Koktel ofizialak.

**Japan Foundation:** Atzerabegirakoa.

**Keler:** 2deo Topagunea.

**Kelonik:** Belodromoa.

**Kutxa Fundazioa:** Artxiboa.

**Kutxabank:** Kutxabank-New Directors Saria.

**La Gula del Norte®:** Irekiera-festa.

**La Perla:** Hospitality.

**Laserfilm Cine y Video:** WIP Latam Industria Saria, WIP Europa Industria Saria.

**LatAm Cinema:** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Lavazza:** Kafea: un Lavazza con...elkarrizketa gunea.

**Lyoneko Institut Lumière:** Klasikoak.

**Málagako zinema-jaialdia:** Spanish Screenings XXL.

**Mar de Frades:** Kursaaleko VIP espazioa.

**Marché du Film-Festival de Cannes:** Proyecta, Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Movistar+:** Media Partner.

**Nephilim Producciones:** WIP Latam Industria Saria, WIP Europa Industria Saria.

**No Problem Sonido:** WIP Latam Industria Saria, WIP Europa Industria Saria.

**Oso Polita:** 2deo Topagunea.

**Parenting at Film Festivals:** Puxika Gorria / El Globo Rojo.

**Pernod Ricard España:** Klausura festa.

**Programa Ibermedia:** WIP Latam.

# Beste zinema-jaialdi, erakunde eta entitate batzuekin lankidetza

**Projeto Paradiso:** WIP Latam.

**Renfe:** Jasangarritasuna.

**Repsol:** Jasangarritasuna.

**RTVE:** RTVE-Beste Begirada saria, RTVE Galak.

**Screen International:** Collaborator Media.

**SGAE Fundazioa:** Made in Spain, Kontzertua & Proiekzioa, Dunia Ayaso Saria, Euskal Gidoi Onenaren saria.

**Sherlock Films:** WIP Latam Industria Saria.

**Tabakalera:** Zabaltegi-Tabakalera, Nest, Ikusmira Berriak, 2deo serieak, Kabia 2deo Topagunea.

**TCM:** Gazteriaren TCM Saria.

**Tecnalia:** Zinemaldia & Technology.

**The Film Verdict:** Collaborator Media.

**The Mediapro Studio:** Nest The Mediapro Studio Saria.

**TikTok:** Bazkide Nabarmena.

**Variety:** Industria Saileko Media partnerra.

**Ventana Sur:** Proyecta, Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa .

**Vicomtech:** Zinemaldia & Technology.

**Xixoneko nazioarteko zinema-jaialdia (FICX):** Crossroads.

**Zineuskadi:** Zinemira, Haurrentzako zinema, Ikastetxeak Belodromoan.

# Industria zinematografikoaren beste jaialdi eta hitzordu batzuetan parte hartzea

**2022ko iraila**

DokLab Navarra: Joxean Fernández, Donostia Zinemaldiari buruzko mintzaldia (irailaren 30a)

**2022ko urria**

Lumière zinema-jaialdia (Film Klasikoen Nazioarteko Azoka): Joxean Fernández, Ondarea eta jaialdiak mahai-ingurua (urriaren 18tik 23ra)

Tokioko zinema-jaialdia: José Luis Rebordinos eta Lucía Olaciregui, Festival programmers dinner networking, Tokyo Cinema Night (networkingeko ekitaldia), Basque Cinema Window (urriaren 26an, 29an eta 30ean)

**2022ko azaroa**

Jakiunde: José Luis Rebordinos, Donostia Zinemaldiari buruzko hitzaldia (azaroaren 4a)

Sevillako zinema-jaialdia: Joxean Fernández, Filmotekak, jaialdiak eta ondarea mahai-ingurua (azaroaren 8tik 10era)

Zinebi: Maialen Beloki, *Emakumeak zinema-jaialdietan*... non daude? (azaroaren 13a)

Beti Ikasten: José Luis Rebordinos, Donostia Zinemaldiari buruzko hitzaldia (azaroaren 11)

Mannheim-Heildebergeko zinema-jaialdia: Maialen Beloki, mahai-inguruak Cutting Edge Talent Camp delakoetan (azaroaren 17tik 20ra)

Open City Dokumental Jaialdia (University College London): Pablo La Parra Pérez, Counter Archives – Zinemaldia 70: All Possible Histories mintzaldia

Cantabriako Filmoteka: José Manuel Arias, Taller de Impulso ekimeneko epaimahaikidea (azaroaren 21a eta 22a)

Errenteriako Giza Eskubideen I. zinema-jaialdia: Ruth Pérez de Anucita, epaimahaikidea (azaroaren 21etik 26ra)

Torino Film Lab: Maialen Beloki, Eurimages Sariaren epaimahaikidea (azaroaren 23tik 27ra)

Centre d'Arts Santa Mònica: Quim Casas, Proiektuen hautaketa, zinema, ingurumen-jasangarritasuna eta erakusketa-formatu berriak mintzaldia (azaroaren 25a)

**2022ko abendua**

Ventana Sur: José Luis Rebordinos, Lucía Olaciregui eta Javier Martín, Films in Progress (azaroaren 27tik abenduaren 1era)

Ventana Sur: José Luis Rebordinos, BWIP-Bloody Work in Progress (azaroaren 28tik abenduaren 2ra)

**2022ko urtarrila**

Helduen Hitza: José Luis Rebordinos, Donostia Zinemaldiari buruzko hitzaldia (urtarrilaren 10a)

ECAM: Eloísa Suárez, Espainiako zinema-egonaldien topaketa (urtarrilaren 12a)

Nantesko Unibertsitatea: Joxean Fernández, hizketaldia Maixabel Lasarekin eta José Luis Sánchez Noriega katedratikoarekin Icíar Bollaínen *Maixabel* filmari buruz (urtarrilaren 28a)

Rotterdamgo zinema-jaialdia: Maialen Beloki, *How to make the most of the film festivals* mahai-ingurua Cinemart azokan (urtarrilaren 28a)

Rotterdamgo zinema-jaialdia: Maialen Beloki, *Reality Check: Festivals Forward* sinposioa (urtarrilaren 29a)

Torino Film Feature Lab: Javier Martín, proiektuen ebaluaz ioa (urtarrilaren 28tik abuztuaren 18ra)

**2023ko otsaila**

Bordeaux-Montaigneko Unibertsitatea: Saioa Riba eta Alex Masson, mintzaldia proiektu kultural eta kulturartekoen masterrean (otsailaren 10a)

**2023ko martxoa**

Danok Kide: José Luis Rebordinos, Donostia Zinemaldiari buruzko hitzaldia (martxoaren 2a)

Tesalonikako zinema-jaialdia: Saioa Riba, nazioarteko merkatuen think tanka (martxoaren 7a)

Málagako zinema-jaialdia: José Luis Rebordinos, Eskubideekin sortzea topaketa ikus-entzunezkoen sektorearekin (martxoaren 10etik 12ra)

# Industria zinematografikoaren beste jaialdi eta hitzordu batzuetan parte hartzea

Málagako zinema-jaialdia (MAFIZ): Esperanza Luffiego, Málaga Work in Progress ekimeneko proiektu zinematografikoak garatzeko, aztertzeko eta horiei buruz hausnartzeko gunea (martxoaren 13tik 17ra)

Málagako zinema-jaialdia: Saioa Riba, Zinemaldiko Industriari buruzko hizketaldia talentei (martxoaren 15a)

Bogotá eta Cartagena de Indiasko zinema-jaialdia: José Luis Rebordinos, Lucía Olaciregui eta Ione Hernández, Gipuzkoa Coopera proiektuan parte hartzen duen Gran Colombiano ikastetxerako bisitaldia, Bogotáko Zinematekarako bisitaldia, ikustaldiak eta bilerak Proimágenes Colombiak sustatutako Cartagena de Indiasko zinema-jaialdian (martxoaren 19tik 26ra)

Akitania Berria Eskualdeko Kultura Agentzia: Javier Martín, ALCAko idazketa-egonaldietarako hautespen-batzordea (martxoaren 27a)

Nantesko Zinema Espainiarraren zinema-jaialdia: Joxean Fernández, Cineastas vascas liburuaren aurkezpena (martxoaren 27tik apirilaren 2ra)

**2023ko apirila**

Carlos III Unibertsitatea (Kultura Kudeaketako Masterra): Joxean Fernández, Donostia Zinemaldiari buruzko eskola (apirilaren 11 eta 12a)

Torino Film Lab / Co-Production Fund: Javier Martín, proiektuen ebaluazioa (apirilaren 18tik maiatzaren 2ra)

Jeonjuko zinema-jaialdia: Maialen Beloki, epaimahaikidea (apirilaren 27tik maiatzaren 8ra)

**2023ko maiatza**

Uruguaiko Ikus-entzunezkoen eta Zinemaren Agentzia: Javier Martín, Sustapen Funtsaren (fikziozko film luzearen kategorian) epaimahaikidea (maiatzaren 5a)

Cannesko zinema-jaialdia: Saioa Riba, zinema-jaialdien merkatuetako think tanka (maiatzaren 17a)

Marché du Film (Cannesko zinema-jaialdia): Saioa Riba eta Maialen Beloki, Producers Network Guest of Honor (maiatzaren 20a)

SFC / Rendez-vous Industry Cannes: Maialen Beloki, Breakfast meetings eta Truth or Dare Workshop (maiatzaren 21etik 24ra)

Dutch Pavilion Cannes: Maialen Beloki, Emerging Dutch Filmmakers meeting (maiatzaren 21a)

Marché du Film (Cannesko zinema-jaialdia): Maialen Beloki, Industry Lunch – Focus Copro (maiatzaren 22a)

**2023ko ekaina**

Huescako Jaialdia: Amaia Serrulla, Jaialdien eta Erakustaldien Emakumezko Zuzendarien II. Topaketa (ekainaren 14a)

Next Lab, Finance & Tech: José Manuel Arias, Spanish Screenings: Financing & Tech ekimenaren aurkezpena (ekainaren 29a)

Circe biltzarra: Maialen Beloki, Zinemaldiari buruzko aurkezpena (ekainaren 30a)

**2023ko uztaila**

Kataluniako Zinema Akademia: Irati Crespo, gidoigintza-egonaldien pitching-jardunaldia (uztailaren 18a)

**2023ko abuztua**

Locarnoko zinema-jaialdia: Maialen Beloki eta Maialen Franco, Open Doors, Networking lunch, Match me (abuztuaren 4tik 7ra)

**2023ko iraila**

Veneziako zinema-jaialdia (Venice Production Bridge): Maialen Beloki eta Maialen Franco, Biennale College Campus, Venice Gap – Financing Market, Networking (Quebeqeko Zinema Institutua) eta German Films (irailaren 1a eta 2a)

**2023ko urria**

BFI (Zinema Institutu Britainiarra): Amaia Serrulla, jasangarritasuna, generoa eta aniztasuna (urriaren 4tik 7ra)

71

SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Estreinaldi motak

- **WP** Munduko estreinaldia
- **IP** Nazioarteko estreinaldia
- **EP** Europako estreinaldia
- **SP** Espainia mailako estreinaldia

# Filmak: Lehiazko sailak


Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
www.sansebastianfestival.com
© Photographs Nico Bustos
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71
Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
rtve
Media Partner
Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
kutxabank
Instituzio Kideak
Instituciones Socias
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
EUSKADI
BASQUE COUNTRY
UE23

# Sail Ofiziala

Publikoan erakutsi gabeko film luzeen hautaketa –ekoitzi diren herrialdean estreinatuak soilik onartzen dira–; betiere, Film Ekoizleen Elkarteen Nazioarteko Federazioak (FIAPF) lehiazko zinema-jaialdien kategorian adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

Sail Ofizialean lehiatzen diren film luzeek dute Urrezko Maskorra jasotzeko aukera. Epaimahai Ofizialak baloratu eta saritzen ditu filmok.

Sail Ofizialean, halaber, lehiaketaz kanpoko filmak eta proiekzio bereziak aurkezten dira.

## Lehiaketan

- **All Dirt Roads Taste of Salt** (AEB) / Raven Jackson (AEB) IP
  **Ikusmira Berriak 2019**
- **Chun xing / A Journey in Spring** (Taiwan) / Tzu-Hui Peng (Taiwan), Ping-Wen Wang (Taiwan) WP
- **El sueño de la sultana / Sultana's Dream (Sultanaren ametsa)** (Espainia - Alemania) / Isabel Herguera (Espainia) WP
- **Ex-Husbands** (AEB) / Noah Pritzker (AEB) WP
- **Fingernails** (AEB) / Christos Nikou (Grezia) EP
- **Great Absence** (Japonia) / Kei Chika-Ura (Japonia) EP
- **Kalak** (Danimarka - Suedia - Norvegia - Finlandia - Groenlandia - Herbehereak ) / Isabella Eklöf (Suedia) WP
- **L'île rouge / Red Island** (Frantzia - Belgika) / Robin Campillo (Maroko) IP
- **La práctica / The Practice** (Argentina - Txile - Portugal - Alemania) / Martín Rejtman (Argentina) WP
- **Le successeur / The Successor** (Frantzia) / Xavier Legrand (Frantzia) WP
- **MMXX** (Errumania - Moldaviako Errepublika - Frantzia) / Cristi Puiu (Errumania) IP
- **O corno / The Rye Horn** (Espainia - Portugal - Belgika) / Jaione Camborda (Espainia) EP
  **Ikusmira Berriak 2020**
- **Puan** (Argentina - Italia - Alemania - Frantzia - Brasil) / María Alché (Argentina), Benjamín Naishtat (Argentina) WP
  **Proyecta 2022**
- **The Royal Hotel** (Australia) / Kitty Green (Australia) EP
- **Un amor** (Espainia) / Isabel Coixet (Espainia) WP
- **Un silence / A Silence** (Belgika - Frantzia - Luxemburgo) / Joachim Lafosse (Belgika) WP

## Lehiaketatik kanpo

- **Kimitachi wa Do ikiruka / The Boy and the Heron** (Japonia) / Hayao Miyazaki (Japonia) EP **INAUGURAZIOA**
- **Dance First** (Erresuma Batua - Hungaria - Belgika) / James Marsh (Erresuma Batua) WP **KLAUSURAKO FILMA**
- **La Mesías** (Espainia) / Javier Calvo (Espainia), Javier Ambrossi (Espainia) WP
  SAILA (OSOA: 7 KAPITULU)

## Emanaldi Bereziak

- **They Shot the Piano Player** (Espainia) / Fernando Trueba (Espainia), Javier Mariscal (Espainia) EP
- **Un métier sérieux / A Real Job** (Frantzia) / Thomas Lilti (Frantzia) SP


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
kutxabank
New Directors
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71

# New Directors

Zinemagileen lehen edo bigarren film luze erakutsi gabeen nazioarteko lehiaketa. Ekoitzi diren herrialdean estreinatutakoek soilik har dezakete parte, azken urtean ekoitziak baldin badira.

Sail honetako film guztiak dira Kutxabank-New Directors saria irabazteko hautagai. 50.000 euroko saria da, zuzendariaren eta filmak Espainian duen banatzailearen artean erdibanatzeko.

Kutxabank-New Directors saria Kutxabankek, Donostia Zinemaldiaren kolaboratzaile ofizialak, babesten du. Kutxabank-New Directors sariaren epaimahaiak baloratu eta saritzen ditu film hauek.

New Directors saileko filmak Gazteriaren TCM saria lortzeko hautagai ere badira. Sari hori 18 eta 25 urte bitarteko ikaslek osatutako epaimahaiak erabakitzen du.

## Lehiaketan

- **Carefree Days** (Txina) / Liang Ming (Txina) WP
  INAUGURAZIOA
- **Kiri no fuchi / Beyond the Fog** (Japonia) / Daichi Murase (Japonia) WP
  KLAUSURAKO FILMA
- **Achilles** (Iran - Alemania - Frantzia) / Farhad Delaram (Iran) EP
- **Bahadur the Brave** (India) / Diwa Shah (India) WP
- **Bauryna salu** (Kazakhstan) / Askhat Kuchinchirekov (Kazakhstan) WP
- **El otro hijo / The Other Son** (Kolonbia - Frantzia - Argentina) / Juan Sebastián Quebrada (Kolonbia) WP
  Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa 2020
- **Hi, mom** (Errusia) / Ilia Malakhova (Errusia) IP
- **La estrella azul / The Blue Star** (Espainia - Argentina) / Javier Macipe (Espainia) WP
- **Last Shadow at First Light** (Singapur - Japonia - Eslovenia - Filipinak - Indonesia) / Nicole Midori Woodford (Singapur) WP
- **Les rayons gamma / Gamma Rays** (Kanada) / Henry Bernadet (Kanada) WP
- **Mother, Couch!** (AEB - Danimarka - Suedia) / Niclas Larsson (Suedia) EP


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
Horizontes Latinos
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71

# Horizontes Latinos

Espainian erakutsi gabeko urteko film luzeen hautaketa; Latinoamerikan erabat edo partzialki ekoitziak, latinoamerikar jatorriko zinemagileek zuzenduak edo munduko beste inguru batzuetako komunitate latinoak hizpide dituztenak.

Horizontes Latinos saileko film guztiak Horizontes saria lortzeko lehiatzen dira. Sari horretako 35.000 euroetatik 10.000 zuzendariarentzat dira, eta 25.000, filmaren Espainiako banatzailearentzat.

Horizontes sariaren epaimahaiak baloratu eta saritzen ditu film horiek. Horizontes Latinos saileko filmak, zuzendariaren lehen edo bigarren lana badira, Gazteriaren TCM saria lortzeko hautagai ere badira. Sari hori 18 eta 25 urte bitarteko ikasleek osatutako epaimahaiak erabakitzen du.

## Lehiaketan

- **El viento que arrasa / A Ravaging Wind** (Argentina - Uruguai) / Paula Hernández (Argentina) EP
  **INAUGURAZIOA - Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa 2021**
- **Pedágio / Toll** (Brasil - Portugal) / Carolina Markowicz (Brasil) EP
  **KLAUSURAKO FILMA**
- **Alemania** (Argentina - Espainia) / María Zanetti (Argentina) WP
  **Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa 2021**
- **Blondi** (Argentina - Espainia - AEB) / Dolores Fonzi (Argentina) IP
- **Clara se pierde en el bosque / Clara Gets Lost in the Woods** (Argentina) / Camila Fabbri (Argentina) WP
- **El castillo / The Castle** (Argentina - Frantzia - Espainia) / Martín Benchimol (Argentina) SP
  **WIP Latam 2022**
- **El Eco / The Echo** (Mexiko - Alemania) / Tatiana Huezo (El Salvador) SP
- **Estranho caminho / A Strange Path** (Brasil) / Guto Parente (Brasil) EP
  **WIP Latam 2022**
- **Heroico / Heroic** (Mexiko) / David Zonana (Mexiko) SP
- **Los colonos / The Settlers** (Txile - Argentina - Erresuma Batua - Taiwan - Frantzia - Danimarka - Suedia) / Felipe Gálvez (Txile) SP
- **Los impactados** (Argentina) / Lucía Puenzo (Argentina) WP
- **Tótem / Totem** (Mexiko) / Lila Avilés (Mexiko) SP


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
TABAKALERA
Zabaltegi
Tabakalera
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71

# Zabaltegi-Tabakalera

Zabaltegi-Tabakalera da Donostia Zinemaldiko lehiazko sailen artean irekiena, ez baitu, estiloari edo denborari dagokionez, inolako mugarik: film laburrak, ertainak, luzeak, fikziozkoak, ez-fikziozkoak, animazioak, serieak, ikus-entzunezko instalazioak, etorkizuneko aurkikuntzak eta klasiko garaikideak, Espainian erakutsi gabeak. Begirada eta molde berriak bilatzen dituen zinemari leku egiten dion saila da; eremu ireki eta arriskatua zinez.

Zabaltegi-Tabakalera saileko film guztiak dira Zabaltegi-Tabakalera saria irabazteko hautagai. Zabaltegi-Tabakalera sariko 20.000 euroetatik 6.000 euro filmaren zuzendariarentzat dira, eta 14.000 euro, filmaren Espainiako banatzailearentzat.

Zabaltegi-Tabakalera saria berariaz sortutako epaimahai batek erabakitzen du, zinemaren eta kulturaren alorreko profesionalek osatua.

## Lehiaketan

- **Film annonce du film qui n'existera jamais: «Drôles de Guerres» / Trailer of the Film That Will Never Exist: «Phony Wars»** (Frantzia - Suitza) / Jean-Luc Godard (Frantzia) SP **INAUGURAZIOA** - Film laburra
- **Subete no yoru wo omoidasu / Remembering Every Night** (Japonia) / Yui Kiyohara (Japonia) SP **INAUGURAZIOA**
- **El juicio / The Trial** (Argentina - Norvegia - Frantzia - Italia) / Ulises de la Orden (Argentina) SP **KLAUSURAKO FILMA**
- **Antier noche / Nights Gone By** (Suitza - Espainia) / Alberto Martín Menacho (Espainia) SP **Ikusmira Berriak 2019**
- **Aunque es de noche / Even Though It's Night** (Espainia - Frantzia) / Guillermo García López (Espainia) SP Film laburra
- **Bén trong vo ken vang / Inside the Yellow Cocoon Shell** (Singapur - Vietnam - Frantzia - Espainia) / An Pham Thien (Vietnam) SP
- **Blazh / Grace** (Errusia) / Ilya Povolotsky (Errusia) SP
- **Camping du lac** (Belgika - Frantzia) / Éléonore Saintagnan (Frantzia) SP
- **Contadores** (Espainia) / Irati Gorostidi (Espainia) SP - Film laburra
- **Duan pian gu shi / Short Story** (Txina) / Wu Lang (Txina) SP - Film laburra
- **El auge del humano 3 / The Human Surge 3** (Argentina - Portugal - Herbehereak - Taiwan - Brasil - Hong Kong - Sri Lanka - Peru) / Eduardo Williams (Argentina) SP
- **Gamopituli khalkhi / We Are the Hollow Men** (Georgia) / Rati Oneli (Georgia) WP - Film laburra
- **Here** (Belgika) / Bas Devos (Belgika) SP
- **L'Île / The Island** (Frantzia) / Damien Manivel (Frantzia) SP
- **La Palisiada** (Ukraina) / Philip Sotnychenko (Ukrania) SP
- **Los delincuentes / The Delinquents** (Argentina - Brasil - Txile - Luxenburgo) / Rodrigo Moreno (Argentina) SP
- **Mamántula** (Alemania - Espainia) / Ion de Sosa (Espainia) WP - Film ertaina
- **Mixtape La Pampa** (Argentina - Txile) / Andres Di Tella (Argentina) WP
- **Or panas yachid / Single Light** (Israel) / Shaylee Atary (Israel) IP - Film laburra
- **Orlando, mi biografía política / Orlando, My Political Biography** (Frantzia) / Paul B. Preciado (Espainia) SP
- **Oyu** (Frantzia) / Atsushi Hirai (Japonia) SP - Film laburra
- **Quitter la nuit / Through the Night** (Belgika - Frantzia - Kanada) / Delphine Girard (Kanada) SP
- **Sīlan** (Frantzia) / Ashmita Guha Neogi (India) WP - Film ertaina
- **Suigyo no majiwari / Two of Us** (Japonia - Frantzia) / Kohei Igarashi (Japonia) WP - Film laburra
- **Xue Yun / Absence** (Txina) / Wu Lang (Txina) SP


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
ARMANI
OFFICIAL BEAUTY SPONSOR
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Perlak
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71

# Perlak

Espainian erakutsi gabeko urteko film luze nabarmenen aukeraketa. Sail honetako filmek kritikaren txaloak edo/eta sariak jaso dituzte nazioarteko beste zinema-jaialdi batzuetan.

Perlak saileko film guztiak dira Donostiako Udalaren babespeko Donostia Hiria Publikoaren Saria irabazteko hautagai. Filmaren lehen proiekziora joaten diren ikusleek boto bidez erabakitzen dute saria.

Donostia Hiria Publikoaren Saria bi sariz osatuta dago: Film Onenaren saria, 50.000 eurokoa, eta Europako Film Onenaren saria, 20.000 eurokoa. Donostia Hiria Publikoaren Saria filmaren Espainiako banatzaileari ematen zaio.

Armani Beauty saileko babesle ofiziala da.

## Lehiaketan

- **The Zone of Interest** (Erresuma Batua - Polonia) / Jonathan Glazer (Erresuma Batua) SP
  **INAUGURAZIOA**
- **Aku wa Sonzai Shinai / Evil Does Not Exist** (Japonia) / Ryusuke Hamaguchi (Japonia) SP
- **Anatomie d'une chute / Anatomy of a Fall** (Frantzia) / Justine Triet (Frantzia) SP
- **Bastarden / The Promised Land** (Danimarka) / Nikolaj Arcel (Danimarka) SP
- **Dumb Money** (AEB) / Craig Gillespie (Australia) SP
- **Io Capitano / I'm Captain** (Italia) / Matteo Garrone (Italia) IP
- **Kaibutsu / Monster** (Japonia) / Hirokazu Koreeda (Japonia) SP
- **Kuolleet lehdet / Fallen Leaves** (Finlandia - Alemania) / Aki Kaurismäki (Finlandia) SP
- **La memoria infinita / The Eternal Memory** (Txile) / Maite Alberdi (Txile) SP
- **La sociedad de la nieve / Society of the Snow** (Espainia ) / J.A. Bayona (Espainia) SP
- **May December** (AEB) / Todd Haynes (AEB) SP
- **Memory** (Mexiko - AEB) / Michel Franco (Mexiko) SP
- **Past Lives** (AEB) / Celine Song (Hego Korea) SP
- **Perfect Days** (Japonia - Alemania) / Wim Wenders (Alemania) SP
- **Rosalie** (Frantzia) / Stéphanie Di Giusto (Frantzia) SP
- **Roter Himmel / Afire** (Alemania) / Christian Petzold (Alemania) SP
- **The New Boy** (Australia) / Warwick Thornton (Australia) SP

## Lehiaketatik kanpo

- **Bâtiment 5 / Les Indésirables** (Frantzia) / Ladj Ly (Frantzia) EP
  **KLAUSURAKO FILMA**


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
TABAKALERA
MÁSTER
DE GUION
THE MEDIAPRO STUDIO
Nest
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71

# Nest

Nest Donostia Zinemaldian zinema-ikasleentzat egiten den film laburren nazioarteko lehiaketa da. Mundu osoko zinema-eskoletako ikasleak biltzen dira, beren lanak aukeratuak izan ondoren, beren film laburren emanaldietan, solasaldietan eta industriako profesionalek ematen dituzten eskola magistraletan parte har dezaten. Hautatutako lanen artean, bereziki sortutako epaimahai batek Nest The Mediapro Studio Saria aukeratzen du. Sari hori hautatutako proiektuaren zuzendariari ematen zaio, zeinak 10.000 euro jasotzen dituen.

Donostia Zinemaldiak eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak Nest saila elkarrekin antolatzen dute.

## Lehiaketan

- **Amma ki katha** (India) / Nehal Vyas (India) SP
  California Institute of the Arts School of Film/Video (AEB) - Film laburra
- **And the Wind Weeps** (Suitza) / Aulona Selmani (Suitza) WP
  Zürcher Hochschule der Künste (Suitza) - Film laburra
- **Entre les autres** (Belgika) / Marie Falys (Belgika) WP
  Institutu des Arts de Diffusion - IAD (Belgika) - Film laburra
- **Garstka ziemi / Handful of Dirt** (Polonia) / Izabela Zubrycka (Polonia) SP
  The Polish National Film, Television and Theatre School in Lodz (Polonia) - Film laburra
- **Kai aš buvau malalietka / When I Was a Juvenile** (Lituania) / Severina Vaičiūnaitė (Lituania) WP
  Lithuanian Academy of Music and Theatre (Lituania) - Film laburra
- **Las estatuas / The Statues (Estatuak)** (Mexiko) / Natalia García Clark (Mexiko) SP
  Elías Querejeta Zine Eskola - EQZE (Espainia) - Film laburra
- **Lo que los árboles sueñan / What the Trees Dream** (Mexiko) / Alfonso de Angoitia (Mexiko) WP
  ESCINE Escuela Superior de Cine (Mexiko) - Film laburra
- **Merci pour votre patience! / Thank You for Your Patience!** (Belgika) / Simon van der Zande (Herbehereak) SP
  KASK - School of Arts Gent (Belgika) - Film laburra
- **Pirsas** (Kolonbia) / Angélica María Torres Tamayo (Kolonbia) WP
  Universidad Jorge Tadeo Lozano (Kolonbia) - Film laburra
- **Si pogués sostenir-me com ho fan els arbres / If I Could Bear Myself Like Trees Do** (Espainia) / Laura Valenzuela Montero (Espainia), Ainhoa Díaz Porto (Espainia) WP
  Universitat Pompeu Fabra (Espainia) - Film laburra
- **Slimane** (Alemania) / Carlos Pereira (Portugal) SP
  German Film and Television Academy Berlin (Alemania) - Film laburra
- **Sombras nada más / Nothing But Shadows** (AEB) / Kathy Mitrani (Kolonbia) WP
  Columbia University (AEB) - Film laburra
- **Tohiko / Escape** (Japonia) / Miharu Mori (Japonia) WP
  Tokyo University of the Arts (Japonia) - Film laburra


SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival
basque culinary center
Culinary Zinema
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71

# Culinary Zinema

Berlingo nazioarteko zinema-jaialdiarekin elkarlanean sortu, eta Basque Culinary Centerrekin lankidetzan antolatutako lehiazko saila da. Bere helburua da zinema, gastronomia eta elikadurarekin lotura duten hezkuntza, zientzia eta nekazaritzako jarduerak egitea. Gastronomiarekin loturiko proposamen zinematografikoen hautaketa bat dago, eta proposamen bakoitzari loturiko afari tematiko bat. Saileko film guztiek Culinary Zinema Film Onenaren Sariko 10.000 euroak eskuratzeko lehiatzen dira.

## Lehiaketan

- **Nada / Nothing** (Argentina) / Mariano Cohn (Argentina), Gastón Duprat (Argentina) WP
  **INAUGURAZIOA** - Saila (OSOA: 5 KAPITULU)
- **La passion de Dodin Bouffant / The Pot au Feu** (Frantzia) / Tran Anh Hung (Vietnam) SP
  **KLAUSURAKO FILMA**
- **Nan fang nan fang / Back to the South** (Txina) / Xiao Haiping (Txina) WP
- **She Chef** (Alemania - Austria) / Melanie Liebheit (Alemania), Gereon Wetzel (Alemania) SP

## Lehiaketatik kanpo

- **Pachacútec, La Escuela Improbable / Pachacútec, The Improbable School** (AEB - Peru) / Mariano Carranza (Peru) WP - Film ertaina

### ZINEMA + AFARIA

| EGUNA - FILMA | SUKALDARIAK |
| --- | --- |
| **Inaugurazioa**<br>Astelehena 25<br>**Nada / Nothing** | Narda Lepes, Martín Sclippa, Martín Bartolomé Bronzi, Leo Zaracho |
| Asteartea 26<br>**Nan fang nan fang / Back to the South** | Martina Puigvert (Les Cols), Carlos Casillas (Barro), Jaime Mondejar Hermosa, Diego Sanz Llorente, Rodrigo Posadas, Cristina Massuh |
| Asteazkena 27<br>**Pachacútec, la escuela improbable / Pachacútec, The Improbable School** | Jhosmery Cáceres (La Mar), Alan Larrea (Percado), Gerson Atalaya (Sens Restaurant) |
| Osteguna 28<br>**She Chef** | Agnes Karrasch (Koks), Nino Fjordside Andersen (Koks), Poul Andrias Ziska (Koks) |
| Ostirala 29<br>**La Passion de Dodin Bouffant / The Pot au Feu** | Sebastien Zozaya (Sebastien Zozaya Charcuterie), Fabian Feldmann (L'Impertinent) |

Afari guztiak Basque Culinary Centerrean egin ziren.

# Eusko Label

# Eusko Label

Eusko Label Donostia Zinemaldiko sail lehiakor berri bat da, eta Eusko Label mikrofilm laburren lehiaketara aurkeztutako lanen hautaketa bat barne hartzen du, hurbileko produktua zinemaren bidez zabaltzeko eta laguntzeko, baita nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren munduan jasangarritasunarekin lotutako guztia sustatzeko eta ezagutarazteko ere. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren HAZI enpresa publikoak eta Zinemaldiak antolatzen dute lehiaketa.

Gehienez hiru minutuko iraupena izan behar dute film laburrek, telefono mugikor batekin eginak izateaz gain. Hautatutako film labur guztiek bi Eusko Label sari jasotzeko aukera izango dute: lehenengoa 6.000 eurokoa izango da film labur onenarentzat eta bigarrena, berriz, 4.000 eurokoa. Sari horiek Zinemaldiak eta Eusko Jaurlaritzak aukeratutako eta ad hoc eratutako epaimahai batek erabaki zituen. Bi film labur irabazleak Zinemaldiaren esparruan eman ziren eta sariak irailaren 30ean (larunbata) Kursaal Auditoriumean egin zen amaiera-galan banatu.

## Lehiaketan

- **12 saihets** (Espainia) / Amaia San Sebastian (Espainia) - Film laburra
- **Beste era batzuk** (España) / Nestor Urbieta Goenaga (Espainia) - Film laburra
- **El más buscado** (Espainia) / Alex Alonso (Espainia), Alessandro Meli (Italia), Yaiza Etxaniz (Espainia) - Film laburra
- **Label Disko** (Espainia) / Maddi Arzallus (Espainia), Jesús Zúñiga (Espainia) - Film laburra
- **Latxa** (Espainia) / Mikel Urretabizkaia (Espainia) - Film laburra
- **Soroborda** (Espainia) / Paolo Tizón (Peru) - Film laburra

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

# Lehiazkoak ez diren sailak

# Made in Spain

HISPANITAS fundación sgae

# Made in Spain

Lehiaketaz kanpoko sail honetan, urte barruan Espainian egindako zinemaren isla diren filmen aukeraketa bat eskaintzen da. Espainian estreinaturiko zein estreinatu gabeko lanak izan daitezke, eta Zinemaldiak nazioartean hedatzeko plataforma bat eskaintzen die film horiei.

Made in Spain sailak Hispanitas du babesle eta SGAE fundazioa kolaboratzaile.

- **No me llame Ternera** (Espainia) / Jordi Évole (Espainia), Màrius Sánchez (Espainia) WP
  **INAUGURAZIOA**
- **La vida de Brianeitor** (Espainia) / Álvaro Longoria (Espainia) WP
  **KLAUSURAKO FILMA**
- **Amanece** (Espainia) / Juan Francisco Viruega (Espainia) WP
- **Asedio** (Espainia) / Miguel Ángel Vivas (Espainia)
- **Bajo terapia / Under Therapy** (Espainia) / Gerardo Herrero (Espainia)
- **Creatura** (Espainia) / Elena Martín Gimeno (Espainia)
- **El fantástico caso del Golem / The Fantastic Golem Affairs** (Espainia) / Juan González (Espainia), Fernando Martínez (Espainia)
- **Els encantats** (Espainia) / Elena Trapé (Espainia)
- **Hay una puerta ahí** (Uruguai - Espainia) / Juan Ponce de León (Uruguai), Facundo Ponce de León (Uruguai)
- **Hormigas perplejas / Perplexed Ants** (Espainia) / Mercedes Moncada Rodríguez (Espainia) WP
- **La memoria del cine: una película sobre Fernando Méndez-Leite / The Memory Of Cinema: A film about Fernando Méndez-Leite** (Espainia) / Moisés Salama (Espainia)
- **La Singla** (Espainia - Alemania) / Paloma Zapata (Espainia)
- **Las chicas están bien / The Girls Are Alright** (Espainia) / Itsaso Arana (Espainia)
- **Matria** (Espainia) / Álvaro Gago (Espainia)
- **Mientras seas tú / Mentre siguis tu / While You're Still You** (Espainia) / Claudia Pinto Emperador (Venezuela) WP
- **Notas sobre un verano / Notes on a Summer** (Espainia) / Diego Llorente Díaz (Espainia)
- **Semilla del son / Seed of the Son** (Espainia) / JuanMa Betancort (Espainia) WP
- **Sica** (Espainia) / Carla Subirana (Espainia)
- **Unzué. L'últim equip del Juancar** (Espainia) / Jesús Muñoz (Espainia), Xavi Torres (Espainia), Santi Padró (Espainia)
- **Upon Entry** (Espainia) / Alejandro Rojas (Venezuela), Juan Sebastián Vásquez (Venezuela)


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
EUSKADI
BASQUE COUNTRY
Irizar
eitb
Zinemira
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71

# Zinemira

Euskal zinemari eskainitako saila da eta Donostia Zinemaldiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatzen dute, Irizar eta EITBk babestuta eta Urbilen, Euskadiko Filmategiaren, EPEren, IBAIAren eta Zineuskadiren lankidetzarekin.

Donostia Zinemaldiko programazioaren barruan mundu mailan estreinatzen diren eta gutxienez %20 euskal ekoizpena duten eta/edo hizkuntza nagusi bezala euskara eta/edo euskal komumitate gaitzat dituzten film luze guztiak Euskal Zinemaren Irizar enpresak babestutako Irizar Saria lortzeko lehiatzen dira.

Ekoizpen arloko profesionalek aholkularitza presentziala izan zuten ekainaren 7an eta 8an.

Aholkularitzetan euskal ekoizle hauek parte hartu zuten:

- **David Aguilar**, Zazpi T'erdi
- **Ana Angulo**, Katz Estudio
- **Marian Fernández**, Txintxua Films
- **Iñaki Gómez**, Bixagu Entertainment
- **Marga Gutiérrez**, En Buen Sitio
- **Hugo López**, Lamia Producciones

# Industria: Lankidetzak

## Iberoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdien topaketa

2015az geroztik, eta Sebastiane Sariaren medioz, Gehitu (Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen elkartea) eta Donostia Zinemaldia elkarlanean aritzen dira urtero Iberoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdien topaketa antolatzeko. Topaketa hori industria-jarduerak egiten diren egunetan gauzatu ohi da, eta hausnarketarako eta sare-lanerako esparru bat eratzeko jomuga argia du.

2023an, Argentina, Txile, Espainia, Mexiko, Paraguai, Peru eta Uruguaiko 16 zinema-jaialditako 22 programatzaile bildu dira Topaketan.

Topaketak bi helburu ditu: lehenik, ikus-entzunezko sektoreak LGTBIQA+ eskubideen arloan dituen joeren eta erronken inguruan hausnartzea, mahai-inguruen eta kasu praktikoen azterketaren bidez, eta, bigarrenik, topaketa industria akreditatuari irekitzea Zinemaldian zehar.

Gainera, Donostia Zinemaldiaren esparruan, Gehituk bi sari banatu ditu: batetik, Sebastiane Saria, Zinemaldian hautatutako filmen artean LGTBIQA+ kolektiboaren errealitateak, askatasunak eta aurrerapen sozialak hobekien islatzen dituen lan bati ematen zaiona; eta Sebastiane Latino Saria, gai berekoa izanik urteko film latinoamerikar bati aitorpen gisa entregatzen zaiona.

### Sariak

Joris Lachaisek zuzendutako *Transfariana* koprodukzio frantziar-kolonbiarrak irabazi zuen XI. Sebastiane Latino Saria.

Estibaliz Urresola zuzendariaren 20.000 *especies de abejas* filmak Sebastiane Saria jaso zuen.

Topaketaren esparruan, mahai-inguru hau programatu da:

**LGTBIQA+ zinema Latinoamerikan: industria inklusiboagoa eta anitzagoa eraikitzen**

**Irailak 23 (asteartea) – Ekitaldi Aretoa, San Telmo Museoa**

Sebastiane Sariak - Gehitu eta Mugen Gainetik-aren laguntzarekin

Industria inklusiboagoa eta anitzagoa lortzeko estrategiei buruzko hausnarketa. Latinoamerikako ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalen esperientzietan oinarrituta, beste ikuspuntu batzuetatik eta aktibismotik industriaren atalaseak igarotzea lortu duten besteko jardunbideak, lan prozesuak eta disidentzia sexualen irudikapena eztabaidatu dira. Halaber, profesional horiek ikuspegi feminista eta queeretik industriari egiten dizkioten ekarpenetan sakondu da, baita horrelako proiektuak sortzeko aurre egin beharreko erronketan ere.

**Moderatzailea**: Anaís Córdova-Páez (zinemagilea eta ikertzailea).

**Hizlariak**: Carolina Robledo (Asunciongo Lesbigaytrans cinema-jaialdiko programatzailea), Bruna Haddad (ekoizlea), eta Alice Stamato (zinemagilea eta ekoizlea).

# Industria: Lankidetzak

## Focus on Brasil

Donostia Zinemaldiko Industria Departamentuak 2014tik antolatzen du bere Focus on ekimena, non herrialde, eskualde edo lurralde batetik etorritako profesionalen lantalde bat Donostia Zinemaldira etortzen den, harreman-sarea zabaltzeko eta industria-jardueretan parte hartzeko.

Aurten, Cinema do Brasilekin gauzatutako lankidetzari esker, Brasilgo ikus-entzunezkoetako zazpi profesionalek abagune paregabea izan dute beren proiektuetarako bazkideak aurkitzeko eta nola Europako hala Latinoamerikako beste herrialde batzuekin batera ekoizteko aukerak zabaltzeko.

Brasilgo delegazioa zazpi profesionalek osatu dute: Maria Rita Buzzar, Luciana Druzina, Samantha Gonçalves, Tatiana Leite, André Morais, Deborah Osborn eta Roberta Ribas

# Industria: Lankidetzak

## Agenda profesionala

- Bilera Espainiako ikus-entzunezkoen industriako partaideekin. Europako Batzordeak antolatuta (Creative Europe MEDIA)
- Espainiako ikus-entzunezkoen industriako partaideekin inbertsioari buruzko mahai-ingurua. Europako Batzordeak antolatuta (Creative Europe MEDIA)
- InvestEU: Finantza-akordioak sinatzea. Europako Batzordeak eta Europako Inbertsio-Funtsak antolatuta
- Spanish Screeningsen On Tour bigarren edizioaren aurkezpena
- Espainiar Zinemaren Egunaren aurkezpena + koktela
- Europa Distribution Workshop
- Ikus-entzunezkoaren finantzaketa: Crowdfunding-a, kreditua eskuratzea eta inbertsioa.
- The best of Italian audiovisual industry. Topaketa eta koktela Donostian dagoen Italiako ordezkaritzarekin.
- Aurkezpena “Zinema- eta ikus-entzunezko industriaren kontabilitate- eta zerga-gida. II. liburukia”
- Networking Cocktail by Catalan Films
- B2B Topaketak: Meet the Italian Delegation
- Best Practice Exchange - Members meeting. ACE Producersek antolatuta
- Andalucia Film Commission: 25 urte zurekin filmatzen. Happy hour, Andalucia Film Comission-ek antolatuta
- EAVE PUENTES gosaria
- Algo se cuece en Madrid. Madrilgo Erkidegoa eta Madrilgo Udalak antolatuta
- Spain Film Commission-ek Espainiako ikus-entzunezko industriaren inpaktu ekonomikoari buruzko lehen ikerketaren helburuak aurkeztu dit. Spain Film Commission-ek antolatuta
- Koprodukziorako eta banaketarako aukerak Italian.. Istituto di Cultura di Madrid-ek antolatua.
- Kanariak Fokuan (networking topaketa)
- Happy Hour Cinema do Brasil
- European Producer’s Club: Board Meeting
- Espainiako ikus-entzunezko industriaren iraunkortasunari buruzko lehen txostenaren aurkezpena. Spain Film Commission-ek antolatuta
- Espainiar zinema: lurralde arteko altxorraren erronkak eta aukerak. Andaluziako Juntak antolatuta, ANCINErekin lankidetzan
- Batzar orokorra ALÍA - Alianza Industria Audiovisual

# Industria: Tresnak

## Webguneko Industria atala

Irailaren 1etik aurrera, Industria Sailak Industria atala jartzen du industriako profesional akreditaziodunen eskura Zinemaldiaren webgunean. Industria Sailak gauzatutako jarduerak eta edukiak biltzen dituen gunea da.

Atal honetan honako hauek egin daiteke:

- WIP Latam eta WIP Europa sailetan hautatutako filmak ezagutzea.
- Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan eta Ikusmira Berriak programan hautatutako proiektuekin one-to-one hitzorduak hitzartzea.
- Industriarekin lotutako jarduera guztietako agenda profesionala eta horietarako sarbidea ezagutzea.
- Industria akreditaziodunak ezagutzea eta bilaketa aurreratuak egitea egonaldi-egunen, jardueraren edo herrialdearen arabera. Horrez gain, Focus on –aurten Brasili eskainia– eta Meet Them! ekimenetako akreditatuak ezagutzea.
- Zinemaldian hautatutako filmen kontaktuak ikustea eta, horien artean, Espainian salmenta-agenterik edo banaketarik ez dituztenak.
- Pentsamendua eta Eztabaida ekimeneko jardueretara eta Industriako jardueretan hautatutako proiektuen pitchingetara sartzea, bai eta Pitching Korner guneberrira ere, non 2deo serieak eta Noka mentoring proiektuetan hautatutako proiektuen aurkezpenak izango diren; Zinemaldia ekimena horien laguntzailea da.
- Industria Jardueren Gida konsultatzea.

## Bideoteka

Zinemaldiko **Bideotekak** industriako profesional akreditatuen eskura jartzen du izena eman duten filmen ikustaldia, lehiaketa amaitu eta hilabetera arte. Tresna horrek aukera ematen die profesional horiei aurrez aurre ikusi ezin izan dituzten filmak ikusteko eta, horrela, balizko akordioak bultzatzeko.

Bideoteka CinandoVL-ek, Marché du Film – Festival de Cannes-ek sortutako zinema-industriako profesionalentzako plataformak, ematen duen zerbitzua da.

Honako film hauek ikusi ahal izan dira:

- Ikusgai egoteko baimena ematen duten Zinemaldiko sail guztietako film hautatuak.
- Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan hautatutako proiekturen bat edo WIP Latam nahiz WIP Europa ataletan hautatutako filmen bat duten zuzendarien lehenagoko film luzeak.
- Plataforman izena emandako film hautatu bakoitzeko, salmenta-eragilearen katalogoko beste film bat, azken urtean ekoiztua.

Estibaliz Urresolaren *20.000 especies de abejas* izan zen Bideotekan gehien ikusi zen filma.

**112** film eskuragarri Bideotekan (132 2022an)

**807** ikustaldi Zinemaldiaren 9 egunetan (1.128 2022an)

**2.072** ikustaldi 2023ko irailaren 22tik urriaren 30ra arte (2.649 2022an)

# Epaimahaiak

# Epaimahai Ofiziala




Christian Petzold, Brigitte Lacombe, Fan Bingbing, Robert Lantos, Claire Denis, Cristina Gallego eta Vicky Luengo.

Sail Ofizialeko Epaimahai Ofizialak sei sari ematen ditu nahitaez: film onenaren Urrezko Maskorra (ekoizlearentzat), zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra, interpretazio nagusi onenaren Zilarrezko maskorra, taldeko interpretazio onenaren Zilarrezko maskorra, gidoi onenaren Epaimahaiaren Saria eta argazki onenaren Epaimahaiaren Saria. Gainera, Epaimahaiak sari berezi bat emateko aukera du.

- Claire Denis, zuzendaria, Frantzia (Presidentea)
- Fan Bingbing, aktorea, Txina
- Cristina Gallego, ekoizlea, gidoilaria eta zuzendaria, Kolonbia
- Brigitte Lacombe, argazkilaria, Frantzia
- Vicky Luengo, aktorea, Espainia
- Robert Lantos, ekoizlea, Hungaria-Kanada
- Christian Petzold, zuzendaria, Alemania

# Kutxabank-New Directors Sariaren Epaimahaia

- Emily Morgan, ekoizlea, Erresuma Batua (Presidentea)
- Ricardo Aldarondo, kazetaria eta kritikaria, Espainia
- Christian Jeune, Cannesko zinema-jaialdiko delegatu nagusiaren ondokoa eta Zinema Departamentuaren zuzendaria
- Juanita Onzaga, zuzendaria, Mexiko
- Elisa Fernanda Pirir, ekoizlea, Guatemala

# Horizontes Sariaren Epaimahaia

- David Hurst, ekoizlea, Frantzia (Presidentea)
- Manuela Martelli, zuzendaria, Txile
- Elisa McCausland, kazetaria, kritikaria eta ikerlaria, Espainia

# Zabaltegi-Tabakalera Sariaren Epaimahaia

- Fiorella Moretti, Luxboxeko presidentea, Peru (Presidentea)
- Cecilia Barrionuevo, programatzailea, Argentina
- Lisa Muskat, ekoizlea, AEB

# Nest The Mediapro Studio Sariaren Epaimahaia

- Lila Avilés, Mexiko (Presidentea)
- Franciszek Berbeka -The Polish National Film, Television and Theatre School in Lodz (Polonia)
- Gillie Cinneri - Institut des Arts de Diffusion - IAD (Belgika)
- Alex del Río - Elías Querejeta Zine Eskola - EQZE (Espainia)
- Servaes Dewispelaere - KASK - School of Arts Gent (Belgika)
- Enrico Fröhlich - Zürcher Hochschule der Künste (Suitza)
- Irene Gil-Ramon - California Institute of the Arts School of Film/Video (AEB)
- Agnė Girsaitė - Lithuanian Academy of Music and Theatre (Lituania)
- Shin Kimura - Tokyo University of the Arts (Japonia)
- Anna Mundet Molas - Universitat Pompeu Fabra (Espainia)
- Abril Sierra Pineda - Universidad Jorge Tadeo Lozano (Kolonbia)
- Donovan Tolledo - Columbia University (AEB)
- Karime Torres Andria - ESCINE Escuela Superior de Cine (Mexiko)
- Gaya von Schwarze - German Film and Television Academy Berlin (Alemania)

# Culinary Zinema Film Onenaren Sariaren Epaimahaia

- Rafael Tonon, gastronomia-kazetaria, Brasil
- Irma Aguilar, gastronomia-kazetaria, Mexiko
- Jose Mari Goenaga, zuzendaria, Espainia

# Eusko Label Sariaren Epaimahaia

- Frédéric Boyer, Tribeca, Les Arcs eta Reikiavikeko zinema-jaialdietako zuzendari artistikoa, Frantzia
- Anuska Ezkurra, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzako komunikazio arduraduna, Espainia
- Roberto Ruiz, chef (Hika Gastronomiko), Espainia

# Euskal Zinemaren Irizar Sariaren Epaimahaia

- Telmo Irureta, aktorea, Espainia (Presidentea)
- Mikele Landa Eiguren, zuzendaria, Espainia
- Kristina Zorita, kazetaria, gidoilaria eta zuzendaria, Espainia

# Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Proiektu Onenarentzako Sariaren Epaimahaia

- Izaskun Arandia, ekoizlea, gidoilaria eta zuzendaria, Espainia
- IFrédéric Cornet, Cinema Galeries-eko zuzendari nagusia eta artistikoa, Belgika
- IMaru Garzón Polanco, zinema-programatzailea eta kultur sustatzailea, Mexiko

# RTVE-Beste Begirada Sariaren Epaimahaia

- Chelo Aparicio, RTVEko kontseilaria, Espainia
- Chelo Loureiro, zuzendaria eta ekoizlea, Espainia
- Ane Abalde, Kutxa Fundazioko Arte eta Ondare zuzendaria, Espainia

# Espainiako Lankidetza Sariaren Epaimahaia

- Enric-Sol Brines i Gómez, AECIDeko komunikazio zuzendaria, Espainia
- Xabier Díaz de Cerio, kazetaria, Espainia
- Ana Garayalde, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen departamentuan teknikaria, Espainia

# Euskadi 2030 Basque Country Agenda Sariaren Epaimahaia

- Greta Fernández, aktorea, Espainia (Presidentea)
- Loreto Mauleón, aktorea, Espainia
- Asier Aranbarri, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Sozialeko zuzendaria, Espainia

# Dunia Ayaso Sariaren Epaimahaia

- Rocío Mesa, zuzendaria, programatzailea eta ekoizlea, Espainia
- Belén Macías, zuzendaria, Espainia
- Ana Murugarren, zuzendaria, Espainia

# Palmaresa

# Sari ofizialak - FIAPF

## Film onenaren Urrezko Maskorra

*O corno / The Rye Horn* (Espainia - Portugal - Belgika) / Jaione Camborda (Espainia)



Jaione Camborda, –*O corno* filmaren zuzendari eta ekoizlea– eta Janet Novás aktorea Urrezko Maskorrari heltzen, María Zamora eta Andrea Vázquezekin batera.

## Zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra

Tzu-Hui Peng, Ping-Wen Wang (Taiwan) / *Chun xing / A Journey in Spring* (Taiwan)



Ping-Wen Wang eta Tzu-Hui Peng, zuzendaritza onenaren Zilarrezko Maskorraren irabazleak, *Chun xing / A Journey in Spring* filmagatik.

## Epaimahaiaren Sari Berezia

*Kalak* (Danimarka - Suedia - Norvegia - Finlandia - Groenlandia - Herbehereak) / Isabella Eklöf (Suedia)



Eskuinean, Isabella Eklöf zuzendaria *Kalak* filmari emandako Epaimahaiaren Sari Berezia erakusten, Maria Moller ekoizlearekin batera (Nadim Carlseni argazki onenagatik emandako saria darama Mollerrek).

## Interpretazio nagusi onenaren Zilarrezko Maskorra (ex aequo)

Marcelo Subiotto (Argentina), *Puan* (Argentina - Italia -Alemania - Frantzia - Brasil)
Tatsuya Fuji (Japonia), *Great Absence* (Japonia)



Tatsuya Fujik –*Great Absence* filmeko aktore nagusietako batek– Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorra jaso zuen ex aequo, Marcelo Subiottorekin batera, *Puan* pelikulagatik.

# Sari ofizialak - FIAPF

## Taldeko interpretazio onenaren Zilarrezko Maskorra

Hovik Keuchkerian (Libano), *Un amor* (Espainia)




Hovik Keuchkerian aktoreak antzeztaldeko antzezle onenaren saria jaso zuen *Un amor* filmean egindako lanagatik.

## Gidoi onenaren Epaimahaiaren Saria

María Alché, Benjamín Naishtat (Argentina), *Puan* (Argentina - Italia - Alemania - Frantzia - Brasil)



María Alché eta Benjamín Naishtat zuzendariek gidoi onenaren epaimahaiaren saria lortu zuten *Puan* filmean egindako lanagatik..

## Argazki onenaren Epaimahaiaren Saria

Nadim Carlsen (Danimarka), *Kalak* (Danimarka - Suedia - Norvegia - Finlandia - Groenlandia - Herbehereak)

# Beste sari ofizial batzuk

## Kutxabank-New Directors Saria

50.000 euroko saria da, zuzendariaren eta filmak Espainian duen banatzailearen artean erdibanatzeko.

*Bahadur the Brave* (India) / Diwa Shah (India)



Diwa Shah, *Bahadur the Brave* filmaren zuzendaria, Visvesh Singh Sehrawat ekoizlearekin eta ThomasAjay Abraham aktorearekin batera kokatzen da argazkirako.

## Horizontes Saria

Horizontes sariaren irabazleak 35.000 euro jasotzen ditu; horietatik 10.000 euro film irabazlearen zuzendariarentzat dira, eta 25.000 euro filma Espainian banatuko duen enpresarentzat.

*El castillo / The Castle* (Argentina - Frantzia - Espainia) / Martín Benchimol (Argentina)



Gema Juárez ekoizlea eta Martín Benchimol, *El castillo / The Castle* filmaren zuzendaria.

## Zabaltegi-Tabakalera Saria

Zabaltegi-Tabakalera sariaren irabazleak 20.000 euro jasotzen ditu; horietatik 6.000 euro filmaren zuzendariarentzat dira, eta 14.000 euro, filmaren Espainiako banatzailearentzat.

*El auge del humano 3 / The Human Surge 3* (Argentina - Portugal - Herbehereak - Taiwan - Brasil - Hong Kong - Sri Lanka - Peru) / Eduardo Williams (Argentina)



Victoria Marotta ekoizlea eta Eduardo Williams, *El auge del humano 3 / The Human Surge 3* filmaren zuzendaria..

**Aipamen berezia**

*El juicio / The Trial* (Argentina - Norvegia - Frantzia - Italia) / Ulises de la Orden (Argentina)

## Nest The Mediapro Studio Saria

10.000 euro hautatutako proiektuaren zuzendariarentzat.

*Amma ki katha* (India) / *Nehal Vyas* (India)
California Institute of the Arts School of Film/Video (AEB)



Lila Avilés zuzendaria, epaimahaiburua, Marie Falys eta Nehal Vyas –aipamen berezia eta Nest The Mediapro Studio saria, hurrenez hurren– lagun dituela.

**Aipamen berezia**

*Entre les autres* Belgika) / Marie Falys (Belgika)
Institut des Arts de Diffusion - IAD (Belgika)

# Beste sari ofizial batzuk

## Culinary Zinema Film Onenaren Saria

10.000 euroko saria filma banatuko duen enpresarentzat.

*La passion de Dodin Bouffant / The Pot au Feu* (Frantzia) / Tran Anh Hung (Vietnam)



Tran Anh Hung, *La passion de Dodin Bouffant / The Pot au Feu* filmaren zuzendaria..

## Euskal Zinemaren Irizar Saria

20.000 euro filmaren ekoizleentzat.

*El sueño de la Sultana / Sultana's Dream (Sultanaren ametsa)* (Espainia - Alemania) / Isabel Herguera (Espainia)




Isabel Herguera, *El sueño de la Sultana / Sultana's Dream* filmaren zuzendaria.

## Eusko Label Sariak

## Eusko Label Lehen Saria

6.000 euroko saria mikrofilm labur onenari.
*Latxa* (Espainia) / Mikel Urretabizkaia (Espainia)



Mikel Urretabizkaia, *Latxa* film mikrolaburraren zuzendaria.

## Eusko Label Bigarren Saria

4.000 euroko saria bigarren mikrofilm labur onenari.
*Soroborda* (Espainia) / Paolo Tizón (Peru)

# Beste sari ofizial batzuk

## Donostia Hiria Publikoaren Saria

Saria saileko film bakoitzaren lehendabiziko emanaldi publikoan diren ikusleek ematen dute. Donostia Hiria Publikoaren Sariak bi sari biltzen ditu: Film Onenaren saria, 50.000 euroz hornitutakoa, eta Europako Film Onenaren saria, 20.000 euroz hornitutakoa.

*La sociedad de la nieve / Society of the Snow* (Espainia) / J.A. Bayona (Espainia)



J. A. Bayona, *La sociedad de la nieve / Society of Snow* filmaren zuzendaria, Stephanie Hsu aktorearen eskutik Publikoaren Saria jaso ondoren.

## Donostia Hiria Publikoaren Saria Europako Film Onenaren Saria

*Io Capitano / I'm Captain* (Italia) / Matteo Garrone (Italia)

## Gazteriaren TCM Saria

*La estrella azul / The Blue Star* (Espainia - Argentina) / Javier Macipe (Espainia)



Amelia Hernández eta Simón de Santiago ekoizleek Javier Macipe eskoltatu dute, *La estrella azul / The Blue Star* filmaren zuzendaria, hain zuzen.

# Industria Sariak




Donostia Zinemaldiko Industria Sariak irabazleen familia-argazkia.

## WIP Latam sariak

### WIP Latam Industria Saria

Best Digital, Deluxe Content Services Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Vídeo, Nephilim producciones, No Problem Sonido eta Sherlock Films enpresek bere gain hartzen dute filmaren postprodukzioa DCPra arte, ingelesezko azpitituluekin eta Espainian banatzea.

*Los domingos mueren más personas / Most People Die on Sundays, Iair Said* (Argentina), Campo Cine-k ekoiztua (Argentina - Italia - Suitza)

### WIP Latam onenarentzako EGEDA Platino Industria Saria

30.000 euro ekoizle gehiengodunarentzat.

*Los domingos mueren más personas / Most People Die on Sundays*, Iair Said (Argentina), Campo Cine-k ekoiztua (Argentina - Italia - Suitza)

## WIP Europa Sariak

### WIP Europa Industria Saria

Best Digital, BTeam Pictures, Deluxe Content Services Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones eta No Problem Sonido enpresek bere gain hartzen dute filmaren postprodukzioa DCPra arte, ingelesezko azpitituluekin, hala badagokio gaztelaniazkoekin eta Espainian banatzea.

**Sari hau irabazten duen filmak gainera, WIP Europa Saria ere jasotzen du** (10.000 euro).

*Mannequins* (*WT*), Michael Fetter Nathansky (Alemania), Contando Films-ek ekoiztua (Alemania)

# Industria Sariak

## Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Sariak

### Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Proiektu Onenari Saria

Zinemaldiak ematen duen sari hau 10.000 eurokoa da eta ekoizle gehiengodunari ematen zaio.

*Todo esto eran mangas / These Were All Fields*, Daniela Abad Lombana (Italia). LA SELVA CINE S.A.S-ek ekoiztua (Kolonbia)

### DALE! Saria (Europa-Latinoamerika Garapena)

DALE! Saria (Europa-Latinoamerika Garapena), Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkarteak (EFAD) eta Iberoamerikako Ikusentzunezko Zinematografiako Agintarien Konferentziak (CAACI) ematen dute 20.000 euroko saria da, proiektu irabazlearen produktore gehiengodunarentzat.

*Little War,* Barbara Sarasola-Day (Argentina), PUCARÁ CINE SRL-ek ekoiztuta (Argentina - Herbehereak)

### ArteKino International Prize

6.000 euroko saria proiektu irabazlearen ekoizle gehiengodunarentzat.

*Los días libres / The Days Off, Lucila Mariani* (Argentina), Maravillacine-k ekoiztua (Argentina - Brasil)

## Ikusmira Berriak Saria

### Elamedia Euskadi Postprodukzioa Saria

Sari honen bitartez, soinu-postprodukzioa (diseinua, nahasketa eta muntaketa), kolore-postprodukzioa, grafismo-lanak eta DCP master bat eskaintzen dira.

*after the night, the night*, Naomi Pacifique (Suitza), Golden Egg Production-ek ekoiztua (Suitza - Herbehereak)

## Zinemaldia Startup Challenge Sariak

### Europako proiektu onena

10.000 euroko saria.

*HypeRate.io* / Hendrikje Wagner (Alemania)

### Espainiako proiektu onena

10.000 euroko saria.

*Witscript* / Mercè Delgado Barrera (Espainia)

Gainera, hautatutako hamar proiektuek dohainik BIC (Business Innovation Centre) bateko inkubaziogunean euren proiektuaren garapena bizkortzeko aukera daukate Euskadiko Parke Teknologikoen Sarean dauden BIC-en batean.

**Beste Industria Sari batzuk**

## XIX Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroaren Sariak

### Ibaia-Bilibin Circular Saria

*Yo terrateniente*, Rodrigo Demirjian (Argentina), Tourmalet Films, AH! Cine-k ekoiztua (Espainia - Argentina

### Dogwoof Saria

*December*, Grzegorz Paprzycki (Polonia), Telemark, Just a moment-ek ekoiztua (Polonia - Lituania)

### IBAIA-Elkargi Saria

*Pulso*, Victoria Alvares (Espainia), Quentin Delaroche (Frantzia), Revoada Produçoes-ek ekoiztua (Brasil)

## Beste sari batzuk

### RTVE-Beste Begirada Saria

*The Royal Hotel* (Australia) / Kitty Green (Australia)

**Aipamen berezia**
*All Dirt Roads Taste Of Salt* (AEB) / Raven Jackson (AEB)

### Espainiako Lankidetza Saria

10.000 euroko saria. Sail Ofizial, New Directors eta Horizontes Latinos sailetarako hautatutako filmen artean aukeratzen da, giza garapenari, pobreziaren erradikazioari eta giza eskubideen egikaritze osoari ekarpen onena egiten dien film iberoamerikarraren egilearentzat.

*La estrella azul / The Blue Star* (Espainia - Argentina) / Javier Macipe (Espainia)

### Agenda 2030 Euskadi Basque Country Saria

*Bâtiment 5 / Les Indésirables* (Frantzia) / Ladj Ly (Frantzia)



Ladj Ly, *Bâtiment 5 / Les Indésirables* pelikularen zuzendariak Euskadi Basque Country 2030 Agenda Saria jaso du.

### Dunia Ayaso Saria

*Creatura* (Espainia) / Elena Martín Gimeno (Espainia)

**Aipamen berezia**
*Mientras seas tú / Mentre siguis tu / While You're Still You* (Espainia) / Claudia Pinto (Venezuela)

## Sari paraleloak

### FIPRESCI Saria

*Fingernails* (AEB) / Christos Nikou (Grezia)

### Feroz Zinemaldia 2023 Saria

*Un amor* (Espainia) / Isabel Coixet (Espainia)



Marisa Fernández Armenteros, *Un amor* filmaren ekoizlea, Feroz Zinemaldia 2023 Saria erakusten.

### Euskal Gidoigileen Elkartea Saria

Isabel Herguera (Espainia), Gianmarco Serra (Italia), *El sueño de la sultana / Sultana's Dream* (Espainia - Alemania)

### Sebastiane 2023 Saria

*20.000 especies de abejas / 20,000 Species of Bees* (Espainia) / Estibaliz Urresola (Espainia)

**Aipamen berezia**
*Gabi, 8 Urtetik 13 Urtera / Gabi: Between Ages 8 And 13* (Danimarka - Suedia - Norvegia) / Engeli Broberg (Suedia)

### Lurra – Greenpeace Saria

*Aku wa Sonzai Shinai / Evil Does Not Exist* (Japonia) / Ryusuke Hamaguchi (Japonia)

### Signis Saria

*All Dirt Roads Taste Of Salt* (AEB) / Raven Jackson (AEB)

### Ateneo Guipuzcoano Saria

*Great Absence* (Japonia) / Kei Chika-Ura (Japonia)

## Ohorezko sariak

# Hayao Miyazaki

Zinemagilea, Donostia Saria



“Eskerrik asko, Donostia Zinemaldia, izen handiko sari honengatik. Gaur egun, egunero egoten naiz estudioan, Ghibli parkerako erakusketak sortzen. Espero dut ikus-entzuleek nire filmaz gozatzea”.

## Ohorezko sariak

# Víctor Erice

Zinemagilea, Donostia Saria



"Beti ulertu izan dut zinema ezagutzarako bide gisa. Horregatik, zinemak gauzak irakasten dizkit gaur egun ere. Urteak igaro ahala, iruditzen zait badela ongi ulertu dudan zerbait, zinemagile baten lana –orain Albert Camus gogoratuz–, beharbada, filmak egiteko artearen esparruetan barreneko ibilaldi luze bat egitea besterik ez dela, lehendabizikoz bihotza ireki zion pantaila batean ikusitako ezohiko irudiak berreskuratzeko".

## Ohorezko sariak

# Paco Sagarzazu

Aktorea, Zinemira Saria



“Nire gurasoei eskaini nahi diet sari hau, zeren haiek inspirazio nahikoa eman baitzidaten, ez lehen, bigarren edo hirugarren mailako aktore izateko, legoako aktore edo komiko izateko baizik, besterik gabe, horixe izan bainaiz, hain zuzen, hainbat urtez, argi-itzal ugarirekin, gizaki ororekin gertatzen den bezalaxe”.

# Hizketaldiak

# Hizketaldiak

## Hizketaldiak, eskola magistralak eta mahai inguruak

Donostia Zinemaldiaren 71. edizioan, Pentsamendua eta Eztabaida arloak elkarrizketen, eskola magistralen eta mahai-inguruen programa zabal bat antolatu zuen, Raven Jackson, Lila Avilés, Albert Serra, Kitty Green eta Christian Petzold zinemagileen sormen-prozesuetan sakontzeko. Beste hainbat gai ere jorratu ziren, hala nola industria inklusiboa bermatzeko ezarri beharreko estrategiak eta industria zinematografikoak aurrean dituen erronka teknologiko berriak.

Pentsamendua eta Eztabaida da Donostia Zinemaldiak ezagutza biltzeko, sortzeko eta transmititzeko gune gisa duen izaera nabarmentzeko arloa, eta, horrez gain, bere buruari galderak egiten dizkio, baita zinema-panorama aldakor baten aurrean etorkizuneko erantzunak ematen saiatu ere.



### Hizketaldiak: Albert Serra

**Irailak 24 (igandea), Tabakalerako Z aretoa**

**Albert Serra** (zinemagilea): “Kameraren begiak giza begiarentzat ikusezinak diren gauzak atzematen ditu: nire filmografia eta lanak ideia horretan oinarritura daude. Dokumentalak egiteko fede handixeago izan behar duzu, ezin diozulako zeure iruditeria aplikatu”.

# Hizketaldiak

## Hizketaldiak, eskola magistralak eta mahai inguruak



### Hizketaldiak: Christian Petzold, zinemagilea, Epaimahaikide ofiziala, *Roter Himmel / Afire* (Perlak)

**Irailak 25 (astelehena), Tabakalera 1**

**Christian Petzold** (zinemagilea): "Nik ez nuen filmik egin zinema-eskolan, ni begiratzen, begiratzen eta begiratzen aritu nintzen. Hiru urte eman nituen pelikulak nola egiten ziren ikusten: zinema-akademia alemaniarraren artxibora joaten nintzen eta filmak xehetasunez ikusten nituen, fotogramaz fotograma, eszenaz eszena. Filmak deseraikitzen zituen, alegia. Nik pelikulak muntatuz eta desmuntatuz ikasi dut dakidana".

Nest MÁSTER DE GUION THE MEDIAPRO STUDIO Impulsada por DAMA



### Hizketaldiak: Kitty Green, zinemagilea, *The Royal Hotel* (Sail Ofiziala)

**Irailak 25 (astelehena), Tabakalerako Z aretoa**

**Kitty Green** (zinemagilea): "*The Assistant* prestatzen ari ginela, Hollywood eta zinema-industria oso traumatizatuta zegoenez Weinstein kasuagatik, ez zirudien une egokia gure filma erakusteko, ez genuen mina kapitalizatu nahi. Baina istorio hori eta istorioaren alde hori kontatu nahi nituen, eta kontatzeko modua aurkitu genuen: leuntasunez, hain zuzen".

2030

# Hizketaldiak

## Hizketaldiak, eskola magistralak eta mahai inguruak



### Hizketaldiak: Deborah Williams, Creative Diversity Network-eko zuzendari exekutiboa

**Irailak 26 (asteartea), Tabakalerako Z aretoa**

**Deborah Williams** (Creative Diversity Network): “Ez dago arrazoirik Zinemaldia bezalako jaialdi batek ez pentsatzeko programazioari aniztasun-estandarrak nola aplikatu. Estandarrak ez dira datuen araberakoak, pertsonen araberakoak baizik, baita gauzei buruz pentsatzeko modua aldatzearen araberakoak baizik, pantailan ikusten duzuna aztertzen has zaitezen”.

EFAD EUROPEAN FILM AGENCIES

Impulsada por DAMA



### Eskola magistrala: Raven Jackson, zinemagilea, *All Dirt Roads Taste of Salt* (Sail Ofiziala)

**Irailak 26 (asteartea), Tabakalera 1**

**Raven Jackson** (zinemagilea): “Konfiantza handia diot gorputzak mintzatzeko duen gaitasunari. Konfiantza diot hitzik erabili gabe elkarrekin komunikatzeko dugun moduari. Belaunaldiez luze-zabal hitz egingo zuen film bat ere egin nahi nuen. Hunkigarria da hainbat belaunaldiren eskuek zenbateraino komunika dezaketen: zimurrak, lerroak, bizitza”.

Nest

MÁSTER DE GUION THE MEDIAPRO STUDIO

Impulsada por DAMA

# Hizketaldiak

## Hizketaldiak, eskola magistralak eta mahai inguruak




### Hizketaldiak: *Vestida de azul: 1983ko Zinemaldiko trans oroimena eta aktibismoa*

**Irailak 28 (osteguna), Tabakalerako Z aretoa**

Julen Zabala (EHGAMeko ekintzailea), Ian de la Rosa (zinemagilea), Lola Rodríguez (aktorea), Nacha (*Vestida de azul* ez fikziozko filmeko protagonista).

**Nacha** (*Vestida de azul* filmeko protagonista): “Onarpena ikus-entzuleen aldetik etorri zen, eta ez hainbeste kritikarien aldetik, kritikak ez baitzion sinesgarritasunik ematen ikusten ari zenari. Publikoki gure bizitza nolakoa zen erakusten ari ginen, eta hori ez da erraza. Geroago, ondorio ugari ekarri zituen horrek. Batzuek kalean ezagutu eta umiliatu edo tu egiten ziguten; beste batzuek, berriz, autografoak eskatu eta negar eginarazten ziguten gauza politak esanez”.

**Julen Zabala** (ekintzaile): *“Veneno, Vestidas de azul* eta halako proiektuak garrantzitsuak dira gure mugimenduaren memoria historikoa berreskuratzeko eta horren guztiaren aurrean gorputza jarri dugunon eta dutenen oroimena berreskuratzeko”.

**Ian de la Rosa** (zinemagilea): “Trans nortasunak eta identitate-gatazkak hor jarraitzen dute oraindik, baina jada ez da trans pertsonon bizitzaren ardatza: egunerokotasunak geroz eta garrantzi handiagoa du, trantsizioaren ondoren bizitzea nolakoa den. Mesedez, utziguzue ez dakizuena kontatzen, goazen errealitatera eta hortik eratu dezagun kontakizuna”.

**Lola Rodríguez** (aktorea): “Eta hau bide luze-luze baten hasiera baino ez da, heroi gisa eta kontatzeko moduko istorioak dituzten pertsona gisa jartzeko bide batena, hain zuzen”.

Impulsada por DAMA



### Eskola magistrala: Lila Avilés, zinemagilea, Nest The Mediapro Studio Sariaren epaimahaiaren presidentea, *Tótem* (Horizontes Latinos)

**Irailak 28 (osteguna), Tabakalera 1**

**Lila Avilés** (zinemagilea): “Film laburra ederra dela sentitzen dut: edukiontzi bat, non erein dezakezun mundu bat izateraino haz daitekeen zerbaiten puskatxo bat. Oso formatu librea da, hanka sartzeko marjina ematen dizu, eta hanka sartzeko marjina duzunean, ondo egiten duzu”.

Nest — Máster de Guion The Mediapro Studio — Impulsada por DAMA

# Hizketaldiak

## Hizketaldiak, eskola magistralak eta mahai inguruak



### Hizketaldiak: Artur Tort, argazki-zuzendaria eta muntatzailea

**Irailak 29 (ostirala), Tabakalera 1**

**Artur Tort** (argazki-zuzendaria eta muntatzailea): "Irudiaren lanean asko interesatzen zaidan zerbait dago: kalkulatuta dagoenaren edo kontrolatzen denaren eta kontrolatzen ez denaren edo kontrola galdu duenaren edo kontrolatu ezin denaren arteko oreka- eta desoreka-joko konplexua, kaosaren eta ordenaren arteko joko bat, hain zuzen".

Nest — MÁSTER DE GUION THE MEDIAPRO STUDIO — Impulsada por DAMA




### Hizketaldiak: C. Tangana, Little Spain *(Esta ambición desmedida / This Excessive Ambition*, Belodromoa)

**Irailak 30 (larunbata), Tabakalera 1**

**Santos Bacana** (zuzendaria): "Lan egiteko dugun moduaren funtsa sortzen diren dinamika horiek dira, non probaldi bat baitago funtzionatzen ote duten ikusteko, eta gero, agidanez, beste proiektu batera estrapolatzen ditugu. Puchok ere hala egiten du lan, eta elkarlan-dinamika hori irakatsi digu".

**Rogelio González** (zuzendaria): "Gure artean dagoen giro ona filmatu den guztiari transmititzen zaio gerora. Horrelako proiektu batean sartzeko modu bakarra komedia asko eta maitasun asko dira".

**Cris Trenas** (zuzendaria eta ekoizlea): "Etorriko zitzaiguna prestatzeko eta horren garrantzia kalkulatzeko denborarik ez genuen izan, eta eskerrak, zeren eta hori hausnartuz gero, ez genuen egingo".

**C. Tangana** (musikaria): "Ez al zaizue gertatzen TikToken egon eta bat-batean konturatzea ordu eta erdi igaro dela baina ezertaz ez zaretela gogoratzen? Kontsumitzeko modua zeharo desberdina da gaur egun".

Impulsada por DAMA

# Hizketaldiak

## Industria

Pentsamendua eta Eztabaida arloak eta Industria Sailak elkarrekin antolatutako jardueren artean, *Benetako gertakarietan oinarritua. Biopic-en arrakasta Espainiako fikzio serializatuan* jardunaldia egon zen. Benetako pertsona baten biografiaren dramatizazioa oinarri duten telesailek izandako gorakadan jarri zuen arreta.

Jardunaldi honetaz gain, Industriak hainbat mintzaldi eta mahai-inguru antolatu zituen, eta, besteak beste, Latinoamerikako ikus-entzunezko industriako inklusio eta aniztasunari eta adimen artifizialari buruz (Zinemaldia & Technology ekitaldian) aritu ziren. Europako ikus-entzunezko ekosistemaren azterketa ere egin zen, Espainiari EBko Kontseiluaren.

Lehendakaritzan egotea tokatzen zaiola-eta. Halaber, bigarren urtez jarraian, Inbertitzaile Sortzaileen Topaketa (Spanish Screenings: Financing & Tech) antolatu zuten, finantzaketan eta koprodukzioan gaur egun dauden joeren inguruko batzarrak eta mahai inguruak proposatu zituen ekitaldia.

# Hizketaldiak

## Industria




### Serieen jardunaldia: Benetako gertakarietan oinarritua. Biopic-en arrakasta Espainiako fikzio serializatuan.

**Irailak 23 (larunbata), Tabakalerako Z aretoa**

Europa Creativa Desk MEDIA Euskadiren laguntzarekin.

“Benetako gertakarietan oinarritutako” kontakizunek oihartzun emozional handiko istorioetan murgiltzera bultzatzen dute ikuslea. Genero horren barruan, biopicak are identitate-maila handiagoa ematen du, Espainiako eta munduko herri-kulturak pertsona ospetsuei buruzko narrazioen aldeko apustua egiten baitu.

Oraingoz, ikusten da 2023an genero horrek eta autobiografien egokitzapenak Espainiako telesailen artean gorakada izan dutela, eta arrakasta izan dute nola kritikan hala ikus-entzule nazional eta nazioartekoen artean. Alabaina, goranzko joera horren erdian, nola lortzen dute ekoizleek eskaintza handiaren artean interesa erakartzea? Zer-nolako zailtasunak dituzte proiektu horiek kontzeptualizazioari eta ekoizpenari dagokienez?

**Moderatzailea:** Isabel Vázquez.

**Hizlariak:** Joana Vilapuig, Mireia Vilapuig eta Teresa Fernández-Valdés.

**Mireia Vilapuig** (*Selftape* sailaren sortzailea): “*Selftape* sailak asko du egiatik eta asko fikziotik. Zati batzuk oso leku erreal batetik interpretatuta daude, baina muga bat ezarri eta gure intimitatea babestu nahi genuen”.

**Joana Vilapuig** (*Selftape* sailaren sortzailea): “Industria honetan emakume den-denok bizi izan ditugu abusu-egoerak, eta halako egoerak kontatu nahi izan ditugu. Ondo egongo zen sexu-egoera hotz bat ikustea txikia nintzela, hala nola *I May Destroy You telesailekoak*”.

**Teresa Fernández-Valdés** (*Nacho* sailaren *showrunnerra* eta gidoigilea): “Ekoizleontzat zaila da haurrekin lan egitea, nahiz eta orain erregulazio handiagoa dagoen, batez ere lanorduei dagokienez. Nolanahi ere, psikologoaren figura beharrezkoa iruditzen zait filmaketetan”.

Impulsada por

# Hizketaldiak

## Industria





### Sendotzea, lankidetza eta inbertsioa: Europako ikus-entzunezko ekosistema bat eraikiz

**Irailak 24 (igandea), Kursaaleko Prentsa Kluba**

Espainiako Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak, Espainiari Europar Batasunaren Kontseiluko Lehendakaritza esleitu zaionez gero gauzatzen ari den jardueren esparruan, jardunaldi profesional bat antolatu zuen. Honek, sektore publiko eta pribatuen babesarekin lankidetzan eta jasangarritasun ekonomikoan oinarrituko den ikus-entzunezko sistema europar bat eratzeko funtsezko alderdietan ipini zuen arreta.

**Nadia Calviño** (lehen presidenteordea eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako jarduneko ministroa): “Pandemiaren ondorioz, jende guztia ikus-entzunezko eduki gehiago kontsumitzen hasi zen. Orduan konturatu ginen zein garrantzitsua den konektibitate-azpiegitura digitalak izatea”.

**Domingo Corral** (Movistar Plus+ plataformako fikziozko eta entretenimenduzko edukien zuzendaria): “Toki-konpainia bat garenez, guretzat funtsezkoa da nazioarteko aliantzak finkatzea”.

**Verónica Fernández** (Netflix España taldeko jatorrizko edukien zuzendaria): “Erakundeen apustua oso garrantzitsua da gure industria geroz eta gehiago haz dadin. Enplegua eta aberastasuna sortzen duen industria bat garela ulertzea da garrantzitsuena”.

**José Carlos García de Quevedo** (ICO taldea): “ICO taldean, ekoiztetxe eta plataforma guztiekin zuzenean hitz egiten dugu, dituzten beharrak ase nahi baititugu; hala, egokitzen saiatzen gara, etorkizuneko erronkei aurre egin nahi baitiegu”.

### Leihatila biziberritzea: Europan banatzeko eta erakusteko estrategia berriak

**Irailak 24 (igandea), Kursaaleko Prentsa Kluba**

Espainiaren Europar Batasuneko Kontseiluaren Lehendakaritzarako Koordinazio Bulegoaren laguntzarekin.

Europako zinema-aretoen erakustaldiari eta etorkizunari buruzko mahai-ingurua. Kontsumo-ohiturei dagokienez eragindako aldaketen aurrean Europan abiarazi diren estrategiei buruz eztabaidatu zen.

**Moderatzailea**: Wendy Mitchell

**Hizlariak**: Ariane Toscan du Plantier, Eduardo Escudero, Enrique Costa, María Magdalena Gierat

**Ariane Toscan du Plantier** (Gaumont Cinemas taldeko Komunikazio eta Ondare Departamentuko zuzendaria, Frantzia): “Uste dut gure zinema –zinema frantsesa– ez doala hain gaizki. 2023ko lehen seihileko datuak pandemiaren aurretik zeudenen antzekoak izan dira”.

**Eduardo Escudero** (A Contracorriente Films taldeko bazkide eta negozio-zuzendaria eta Europa Distribution elkarteko presidentekidea, Espainia): „Lehengoratzen ari gara, baina 20 filmek metatzen dute zinema-aretoetan bildutako guztizkoaren % 70. Zinema-aretoak funtsezkoak dira zinema independenterako“.

**Enrique Costa** (banatzaile independentea Elastica Films ekoiztetxean, Espainia): “Egoera ez da 2019an, 2018an eta 2017an bezalakoa, baina etorkizun handia duela dirudi”.

**María Magdalena Gierat** (Kino Pod Baranami, Europa Cinemas sarearen idazkaria, Polonia): “Hainbat motatako ikus-entzuleekin lan egiten dugu, adinari, interesei eta abarri dagokienez: emanaldi bereziak eta eztabaidak antolatzen ditugu adinekoekin eta gaueko saioak ikasleekin”.

# Hizketaldiak

## Industria



### LGTBIQA+ zinema Latinoamerikan: industria inklusiboagoa eta anitzagoa eraikitzen

**Irailak 26 (asteartea), San Telmo Museoko Ekitaldi aretoa**

Sebastiane Sariekin (Gehitu) eta Mugen Gainetik erakundearekin lankidetzan

Latinoamerikako ikusentzunezkoen sektoreko profesionalen esperientzietan funtsatuta, beste ikuspuntu batzuetatik eta aktibismotik industriaren atalaseak igarotzea lortu duten beste jardunbide batzuetatik, lan-prozesuak eta disidentzia sexualen irudikapena eztabaidatu ziren.

**Moderatzailea**: Anaís Córdova-Páez

**Hizlariak**: Carolina Robledo, Bruna Haddad y Alice Stamato

**Carolina Robledo** (Asuncióngo Lesbigaytrans zinema-jaialdiko programatzailea): “Gure jaialdian aliantzak ehuntzen ditugu kultura-zentroekin, kontuz ibiltzen gara guneak seguruak izan daitezen pertsonentzat, eta LGTBI pertsonenganako estereotipoak errepikatzen ez dituzten filmak hautatzen ditugu”.

**Bruna Haddad** (ekoizlea): “2015etik 2020ra, nire lan-bizitzan jazarpen-egoerak behin eta berriz gertatzen ziren. Horregatik, Dos estaciones ekoitzi nuenean, filmatzeko lekua segurua eta anitza izateko gogo bizia genuen”.

**Alice Stamato** (errealizadorea eta ekoizlea): “Brasilen asko gertatzen da: zeure ekoiztetxe propioa sortzen duzu, txikia, benetan egin nahi dituzun gauzak egiteko, kontatu nahi dituzun eta ondoren ikusi nahi dituzun narrazioak ekoizteko askatasuna izateko”.



### Diskriminazioa eta genero-estereotipoak desagerraraztea ikus-entzunezkoetan: ikus-entzuleak pantailan bera bezalako pertsonaiak ikustearen plazera

**Irailak 26, Prentsaurreko aretoa, Kursaal**

**Moderatzailea**: Beatriz Aparicio

**Hizlariak**: Clara Sans, Paz de Alarcón, Arantxa Echevarría, María Pilar Rodríguez

**Paz de Alarcón** (aktorea): “Castingak estereotipoz beteta daude: neskatoa, neska gaztea, emakume ederra, sexya, etab. Halaxe hitz egiten da sektorean, eta indarkeria estetikoak maila guztietan dirau“.

**Clara Sans** (aktorea): “Egoera zerbait aldatzen da, bai, baina emakume zuzendari gehiago daudelako ari da hori gertatzen. Emakume zuzendariak deitu didatenean hasi naiz ni lanean“.

**Arantxa Echevarría** (zinemagilea): “Herritarren erdiak isilik egon gara, ez ditugu gure istorioak kontatu. Orain arte gizonek kontatzen ziguten ama izatea nolakoa den, maitasuna edo orgasmoa nola sentitu behar dudan. Nik hori ikusten nuenean ez nintzen identifikatuta sentitzen“.

**María Pilar Rodríguez** (ikertzailea): “Emakumeek filmak egiten dituztenean, ordura arte irudikatu ez diren gizarteko zatiak erakusten dituzte“.

# Hizketaldiak

## Industria




### Sexu, genero edo botereagatiko abusurik gabeko ikus-entzunezkoetarako jardunbide egokiak

**Irailak 27, Ekitaldi aretoa, San Telmo Museoa**

**Moderatzailea**: Virginia Yagüe

**Hizlariak**: Carla Vall i Duran, Aina Gimeno, Maitane San Nicolás

**Carla Vall i Duran** (abokatua): “Kasuen % 8 salatzen dira. Ez gaude beste sektore batzuetan baino okerrago, baina ekonomia- eta lan-mendekotasuna askoz ere handiagoa da, eta beste laguntza-sare batzuk ehuntzen lagundu behar da, biktimek abusuen berri eman dezaten”.

**Aina Gimeno** (aktorea eta Actors i Actrius Professionals Valencians sindikatuko berdintasun-idazkaria): “Jardunbide egokien protokoloa aurrerapauso bat izan da, zerbait larria gertatu denean zer egin ikusteko ez ezik, abusuak prebenitzeko ere balio duten baliabideak ematen dituelako”.

**Maitane San Nicolás** (intimitate-koordinatzailea): “Intimitate-koordinatzaile batek setetik kanpo detekta ditzake abusuak, botere-dinamika hori arintzeko lan egiten dugulako, komunikazioa ireki eta zintzoagoa izan dadin, eta aktoreek “ez” edo “ez dakit” esan nahi dutenean “bai” esan behar izan ez dezaten”.




### Zinemaldia & Technology: Adimen artifiziala: arriskua ala aliatua?

**Irailak 28 (osteguna), Tabakalerako Prisma**

Adimen artifiziala munduko ikus-entzunezkoen panorama banantzen ari da eta mahai inguru honetan bi ikuspuntutik aztertu zen: pertsona batzuek arriskutzat jotzen badute ere, beste batzuek harekin bat egiten eta teknologia horrek eskaintzen dituen abantailak baliatzen jakin dute, teknologia horrekin sormenez lan egiten ikasteko.

**Moderatzailea**: AC Coppens

**Hizlariak**: Marta Peirano y Javier Urosas

**Marta Peirano** (idazlea eta kazetaria): “Adimen artifizialak sortutako edukia identifikagarria izan beharko litzateke. Adimen artifizialez egindako eduki batzuek nahasi egiten dute jendea”.

**Javier Urosas** (Delux taldeko VFX eta postprodukzioko arduraduna): “Tresna hori erabiltzea ona dela deritzot. Postprodukzio-fasean prozesu jakin batzuk oso aspergarriak dira eta giza kapital handia xurgatzen dute. Arazoa zera da, berez industria ez den merkatu batean sartzen dela, eta gainditu beharreko lege- eta eskubide-oztopoak existitzen direla”.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## 365 eguneko zinemaldi bat

Donostia Zinemaldiak denbora asko darama adierazten Zinemaldia bi gauza dela berez. Alde batetik, Zinemaren munduko ospakizun komunitario bizi bat da, Donostian iraileko bederatzi egunetan zehar gertatzen dena. Hala, komunitateak eta herritarrek aukera dute, Zinemaldian zehar, filmak deskubritzeko, eta industria zinematografikoa eta komunikabideak negozioa egiteko eta ideiak eta esperientziak trukatzeko elkartzen dira, halaber, Zinemaldian.

Bestetik, zinemaren alorreko prestakuntza eta ezagutzen transmisioa sustatzeko, proiektu zinematografikoen garapenean lagun egiteko eta ikerketa eta dibulgazioa bultzatzeko urteko 365 egunetan lan egiten duen erakundea ere bada. Horrenbestez, Zinemaldia ekitaldi gisa existitzen da eta, bestetik, Zinemaldia erakunde gisa. Eta Z365 eremua, edo urte osoko Zinemaldia, hain justu ere, Zinemaldiaren Erakunde gisa identifikatzen dugun hori da.

Z365en egutegian zabaldutako jarduera hau Zinemaldiak Tabakaleran dituen bulegoen kokapenari esker gauzatzen da: proiektu aitzindari eta berritzaile bat, parekorik ez duena munduan eta lau ekimen biltzen dituena: lehenik, kultura garaikidearen nazioarteko zentro bat (Tabakaleraren kultur proiektua); bigarrenik, nazioarteko zinemaldi bat (Donostia Zinemaldia); hirugarrenik, pentsamendu, ikerketa, jardun esperimental eta berrikuntza pedagogikorako nazioarteko zentro bat (Elias Querejeta Zine Eskola); eta laugarrenik, filmoteka nazional bat (Euskadiko Filmategia). Eraikinaren ekosistemak, beraz, zinemaren iragana, oraina eta etorkizuna batzen ditu, eta ikuspegi integral batetik, gainera, zinemagileen komunitatea babesten baitu, erakundeekin partekatutako proiektuen medioz. Erakundeok urteetan zehar beren lanbide-jardunaren ondorioz eskuratutako berariazko ezagutzen ekarpena egiten dute.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## 365 eguneko zinemaldi bats



Ikusmira Berriak 2023 programako egoiliarren familia-argazkia: aurrean, Naomi Pacifique eta María Alché; atzean, Sameh Alaa, Maddi Barber, Hikaru Uwagawa eta David Pérez Sañudo.

Z365 eremuak askotariko proiektuak biltzen ditu. Prestakuntza-proiektuen artean Elías Querejeta Zine Eskola bera dago. Proiektu partekatua da, kontzeptu gisa eratu zenez geroztik bertatik, eta Zinemaldiak modu askotan hartzen du parte EQZEn: zuzendaritza akademikoan egoteaz gain, *SSIFF*, *zona en obras*, izeneko irakasgai propio bat du ikastetxean, eta ikasleen hainbat proiektutan tutoretzako eta lagun egiteko lanak gauzatzen ditu. Bigarren prestakuntza-proiektua Zinemagileen arteko Elkarrizketak da, Koldo Mitxelena Kulturunearekin lankidetzan antolatua, eta ekimen horri esker, urteko euskal eta espainiar zinemaren berrikuspen lasaiagoa egin ahal da haren protagonisten eskutik, herritarrak hartara hurbiltzeaz gain prestakuntza-ikastaro baten bidez.

Talentu berriak prestatzeko eta bilatzeko programa mistoen artean Nest saila dago, Zinemaldiak eta Tabakalerak elkarrekin antolatua, mundu osoko zinema-ikasleen karrera-amaierako proiektuen film laburren lehiaketa gisa. Orobat, atal honek prestakuntza-topaketa ere izateko jomuga sendoa du, ad hoc eskola magistralak antolatzen baitira parte-hartzaileentzat.

Proiektuak garatzeko programarik garrantzitsuena Ikusmira Berriak da, Zinemaldiak, Tabakalerak eta Elias Querejeta Zine Eskolak elkarlanean antolatua; gaur egun bederatzigarren ediziora iritsi da Ikusmira Berriak, eta zinemagileek eskaintzen dituzten baliabideei eta aholkularitzari esker, nazioarteko egonaldi-programen artean ondoen baloratutako bat da. Nabarmentzekoak dira, halaber, Zinemaldiak Tabakalerarekin lankidetzan gauzatzen dituen mentoring-programak (lehenengoa, Noka, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakume zinemagileen film luzeen proiektuei zuzendua) eta sailak garatzeko laborategia (2deo Serieak).

Sortzen ari den talentuari emandako laguntza horrek eta talentu horiei proiektuak garatzen lagun egiteak talentu zinematografiko integrala babesteko sistema bat eratzeko jomuga du: sistema hori ez da mugatzen proiektu bat ekoiztea eta ikusaraztea erraztera; aitzitik, zinemagileak denboran zehar modu iraunkorrean prestatu, lagundu eta babesteko xedea ere badu. Ikasgeletatik hasi eta filmak erakutsi arte ematen da babesa, zinemagile berriak ezagutarazteaz gain, karrera egiten eta zinema-arloan bizitza profesionala garatzen laguntze aldera.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## 365 eguneko zinemaldi bat

Berrikuntza gisa, aurten Kabia sortu da: Donostia Zinemaldian dauden talentu berriak (Ikusmira Berriak programako egoiliarrak New Directors eta Nest sailetako ekipoak, etab.) eta Tabakalera eraikinean bizi den komunitatea (Nokan hautatutako zinemagileak, Elias Querejeta Zine Eskolako ikasleak, etab.) leku berean elkartzeko gune horretan, ideiak trukatu eta proiektuak partekatzeko aukera dute parte-hartzaileek. Era berean, parte-hartzaileei industriako profesionalekin zuzenean harremanak izateko aukera emateko helburua ere badu, beren ibilbide profesionalari eta proiektu zinematografikoei buruzko feedback baliotsua izan dezaten (zinemagileen interesekoak diren programetan lan egiteagatik ad hoc aukeratzen dira profesional horiek).

Dibulgazio-programen artean, nabarmentzekoa da, batetik, Zinemaldia + Plus fokuarekin Tabakalerako pantaila partekatuan parte hartzen duela Zinemaldiak (zehazki, urte osoko lehiaketaren lan-ildoetako film eta proiektu estrategikoak programatzen ditu); eta, bestetik, Zine euskal zinemaren ikasketen aldizkari akademikoaren Argitalpen Kontseiluan, batera antolatzea eta parte hartzea.

Aipamen berezia merezi dute 2022-2023an Donostia Zinemaldiaren iragana aztertzeko eta etorkizuna analizatzeko helburua duten zeharkako bi proiektuek: batetik, Artxiboa dugu, lehiaketaren artxibo bizi historikoaren inguruko ikerketa; eta bestetik, Pentsamendua eta Eztabaida, Zinemaldiaren etorkizuneko jarduketa-ildoak analizatu eta horiei aurrea hartzeko xedea duen ekimena.




Kabia gunearen ikuspegia Donostia Zinemaldiaren 71. edizioan.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Artxiboa






2023an honako pertsona hauek eskuratu zituzten José Ángel Herrero-Velarde ikerketa-bekak: Felipe Cabrerizo, Endika Rey eta Neus Sabate (goian) eta Violeta Kovacsics, Aida Vallejo eta Minerva Campos (behean).

2023ko urtarrilak markatu zuen Donostia Zinemaldiaren artxibo historikorako proiektuaren fase berria. Artxiboa webguneak 70 urte baino gehiagoko historia biltzen du eta azken lau urteotan egindako kontserbazio-, katalogazio- eta digitalizazio-lanak egin ondoren, jada errealitatea da eta, historian lehen aldiz, guneak ateak ireki zituen aurrez aurreko kontsultarako, berme profesional guztiak emanez. Lehiaketaren iraganaren inguruko azterketa eta pentsamendua suspertzeko eta aberasteko asmoz, Artxiboak José Angel Herrero-Velarde ikerketa-beken lehen edizioa aktibatu du aurtengo ikasturtean (bi alderditan: batetik, Gipuzkoa mailan; bestetik Estatu osoan); halaber, bere ondare material zabalean oinarritutako ikasketa akademikoak egiteko laguntza ematen du.

## Pensamiento y debate

2020an sortu zenetik, Pentsamendu eta Eztabaida arloak gaiak, formatuak eta pertsona garrantzitsuak identifikatzean ipini du arreta, kultura zinematografiko garaikideak eta zinema-jaialdien nazioarteko zirkuituak dituzten erronka eta kezka nagusien inguruko eztabaida gidatzeko eta erantzun berritzaileak garatzeko. Azken hiru urteotan, arloak bi gai izan ditu ardatz: batetik, ekitaldi iraunkorrago batera iragaitea; bestetik, generoaren eta aniztasunaren aldagaiak nola lan prozesuetan hala Zinemaldiaren edukietan txertatzeko lana.

Ildo horretan, jasangarritasun-proiektuaren puntu nabarmengarrietako bi honako hauek dira: lehenik, 2020an proposatutako aldaketen ezarpena amaitu dela; eta, bigarrenik, Zinemaldiak jauzi kualitatiboa eman ahalko duela karbono aztarna murrizteko baliagarriak izango zaizkion neurriak ezartzeari dagokionez. Generoari eta aniztasunari gagozkiela, 2023an Zinemaldiak bere protokolo propioa egin du sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatiko erasoaren aurka, eta prozesu hori langile guztientzako prestakuntza-saioekin osatu da.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Elías Querejeta Zine Eskola

Gipuzkoako Foru Aldundiak fundatua eta finantzatua, Elias Querejeta Zine Eskola (EQZE) 2017an sortu zen begirada integrala duten eta errealitate zinematografiko berriak (lan-arlokoak, kontzeptualak, sorkuntza-arlokoak profesionalak) sortzeko gai diren zinemagileak agertzea sustatzeko.

Donostia Zinemaldiak zinemaren hiru garaien eskola bera kontzeptualizatu zuen lantaldean parte hartu zuen, Euskadiko Filmategiarekin eta Tabakalerako proiektu kulturalarekin batera.  Horrela, Tabakalera eraikinean zeuden ezagutzak proposamen akademiko bakar batean islatu ziren, eta proposamen horrek hiru espezialitate zituen, aurrerago Euskal Herriko Unibertsitate Publikoaren graduondoko titulu bihurtuko zirenak: Komisariotza, Artxiboa eta Sorkuntza.

Zinema-jaialdi batek eskola baten sorreran parte hartzeak bulkada bikoitz bati erantzuten zion hasieratik.

Alde batetik, Elias Querejeta Zine Eskolak abiadura geldoago eta akademikoago bat ahalbidetzen zuen, bere iragana, oraina eta etorkizuna analizatzeko, zinema-jaialdien azterketaren testuinguruan. Hausnarketa horretatik sortu zen, adibidez, *Z70: historia posible guztiak* proiektua, zeina 2022an Artxiboa bihurtu baitzen.

Bestetik, eskolan parte hartuz, Zinemaldiak aurretik abian jarritako proiektuetan sakontzen jarraitu nahi zuen. Proiektu horiek zinemagileei, profesionalizaziorako bidean, babesa eta laguntza emateko helburua zuten, eta horien artean daude Nest saila (zinema-ikasleen nazioarteko topaketa), Ikusmira Berriak proiektuak garatzeko egonaldi-programa, eta New Directors, Zinemaldiko atalik nabarmenenetako bat, zinemagileen lehen eta bigarren lanak biltzen dituena. Eskolak zinemagileei ikasgelatik mundu profesionalera igarotzeko prozesuan lagun egitearekin lotuta hutsik zegoen gune hori bete zuen.

Gaur egun, Zinemaldia eskolaren zuzendaritza akademikoko kide da Tabakalerarekin, Euskadiko Filmategiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Horrez gain, berezko irakasgai bat ere badu, *SSIFF: zona en obras*; zinema-jaialdien errealitaterako hurbilketa teoriko-analitiko-esperientziala egiteko jomuga du irakasgaiak, eta leku pribilegiatu batetik, gainera: Donostia Zinemalditik, hain zuzen, paradigma-aldaketako une historiko batean abiapuntu eta aztergai gisa. Horrela, eskolan dauden irakasle, ikasle eta profesionalekin batera honako galdera honi erantzun kolektibo bat ematea da helburua: “Zer izan da, zer da eta norantz doa Donostia Zinemaldia?”

Era berean, ohikoa da lehiaketako hainbat profesionalek Komisariotza Arloko ikasleen proiektu espezifikoak tutoretza-erregimenean hartzea eta azken hipotesiak ebaluatzeko batzordeetan parte hartzea.

Azkenik, eskolako ikasleek parte hartzeko eta lehen harreman profesionala izateko gune gisa ere planteatzen da lehiaketa; horretarako, ordaindutako bost praktika-plaza eskaintzen dira, erakundearen lau sailetan: Komunikazioa, Web & IKT, Industria eta Teknika. 2023an, halaber, curriculum-praktikak sortu dira, Komisariotzako ikasle guztiek parte hartu ahal izan dezaten Z365 aterkiaren barruko hainbat proiekturen lan-prozesuak ezagutzen: Prestakuntza (Nest eta Ikusmira Berriak), Pentsamendua eta Eztabaida, Artxiboa, Zinemagileen elkarrizketa eta Zinemaldia + Plus.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Elías Querejeta Zine Eskola




Elías Querejeta Zine Eskolako 2023-2023 ikasturteko ikasleen familia-argazkia.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Zinemaldia + Plus



Donostia Zinemaldiaren artxiboaren jendaurreko aurkezpenaren une bat.

2020ko urrian, Zinemaldia + Plus sortu zuen Zinemaldiak: zinema-jaialdiak Tabakalerako pantaila publiko partekatuan parte hartzeko urteroko fokua. Foku horrek azpimarratzen du nola jartzen den harremanetan Zinemaldia zinema-sorkuntzarekin eta ikusentzunezkoen industriarekin, lurraldearekin eta integratzen den komunitatearekin; hori guztia modu zabal batean egiten du bai egutegiari, bai formatuari dagokionez, emanaldien programen bidez, mahai-inguruen bidez, mintzaldien bidez, erakusketa-elkarrizketen bidez eta beste bitarteko batzuen bidez.

Horrela, Zinemaldia + Plus fokuak bere barnean hartzen dituen jardueren artean daude Zinemaldiko elkarrizketak eta haien urte osoko zinema-jaialdiko programak (Z365), eta horiek gauzatzen dira prestakuntza eta talentu berriekin (Lehen Urratsak, Elías Querejeta Zine Eskola eta Nest), proiektuen garapenarekin (Ikusmira Berriak) eta ikerketa eta dibulgazioarekin (*Zinemaldia 70: historia posible guztiak*) lotutako ekimenen bidez.

### Programa 2022-2023

**Urriak 22.** Zine aurkezpena: Antxon Eceiza

- **Ke arteko egunak** (Espainia, 1989) / Antxon Eceiza (Espainia)

**Azaroak 26.** Gutun zuria: Paolo Moretti

- **Re Granchio / The Tale of King Crab (La leyenda del cangrejo)** (Italia - Frantzia  - Argentina, 2021) / Alessio Rigo de Righi (AEB), Matteo, Zoppis (AEB)

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Zinemaldia + Plus

**Abenduak 17.** *Z70: historia posible* guztiak ikerketa-proiektuaren ekitaldi publikoaren proiekzioa

Pablo La Parra Pérez ikerketa-proiektuaren arduradunak egin zituen moderatzaile-lanak. Maialen Beloki (Donostia Zinemaldia), Carlos Muguiro (Elías Querejeta Zine Eskola), Arantza Mariskal (Medialab Tabakalera), Joxean Fernández (Euskadiko Filmategia) eta Ane Abalde (Kutxa Fundazioa) izan ziren gainerako parte-hartzaileak. Ondoren, Lorena Soria, Andrea Sánchez eta Anna Ferrer Homs zaharberritzaile eta kontserbatzaileek funtsak kontserbatzeko eta katalogatzeko prozesuaren gako teknikoak azaldu zituzten mahai-inguru batean. Irati Crespok, Zinemaldia 70 proiektuaren koordinatzaileak, modu praktikoan azaldu zituen Zinemaldiko funtsetara sartzeko gakoak, Un archivo abierto: acceso, consulta y uso de materiales hitzaldian. Ondoren, La Parrak Un archivo vivo: investigación y pensamiento hitzaldia eman zuen. Jardunaldia amaitzeko, EQZEko lehen promozioko ikasle izandako Clara Rus egilearen ¿Cuáles son nuestros años? film laburra proiektatu zen, EQZEko ikasleek 2018an artxiboarekin izandako lehen kontaktua dokumentatzen duena.

**Urtarrilak 9.** Nest: Saritutako filmak

- **Nest 21 (Making of)** (Espainia, 2022) - Film laburra

Nest sail lehiakorraren 21. aldiaren *making of*-a, Elías Querejeta Zine Eskolako ikasle Hikaru Uwagawak egina

- **Anabase** (Suitza, 2022) / Benjamin Goubet (Frantzia) - Film laburra
- **Montaña azul / Blue Mountain** (Kolonbia, 2022) / Sofía Salinas (Kolonbia), Juan David Bohórquez (Kolonbia) - Film laburra

**Otsailak 9.** Zinemagileen arteko elkarrizketak

- **Las niñas/ Schoolgirls** (Espainia, 2020) / Pilar Palomero (Espainia)

**Martxoak 23.** Jeonjuko jaialdia: ‘Jeonju Cinema Project’-en 10 urte’

- **Cho-haeng / The First Lap** (Hego Korea 2017) / Kim Dae-hwan (Hego Korea)

**Apirilak 8.** 2023ko Ikusmira Berriak proiektuko egoiliarrek zuzendutako film laburren hautaketa

- **after a room** (Erresuma Batua - Suitza - Herbehereak, 2021) / Naomi Pacifique (Costa Rica) - Film laburra
- **592 metroz goiti / Above 592 Metres** (Espainia, 2018) / Maddi Barber (Espainia) - Film laburra
- **I am afraid to forget your face** (Egipto - Frantzia, 2020) / Sameh Alaa (Egipto) - Film laburra
- **La colcha y la madre** (Espaina, 2021) / David Pérez Sañudo (Espaina) - Film laburra
- **Noelia** (Argentina, 2012) / María Alché (Argentina) - Film laburra
- **Ulysses: Telemachus and Penelope** (Espaina, 2022) / Hikaru Uwagawa (Japonia) - Film laburra

**Apirilak 9.** Benjamín Naishtat

- **Historia del miedo / History of Fear** (Argentina - Frantzia - Alemania - Uruguay - Qatar, 2014) / Benjamín Naishtat (Argentina)

**Maiatzak 20.** Thierno Souleymane Diallo

- **Au cimetière de la pellicule / The Cemetery of Cinema** (Frantzia - Senegal - Ginea – Saudi Arabia, 2023) / Thierno Souleymane Diallo (Ginea)

**Ekainak 3.** Zinemagilea egoitzan: Pedro Costa

- **Sicilia!** (Italia – Frantzia – Suitza, 1998) / Danièle Huillet (Frantzia), Jean-Marie Straub (Frantzia)
- **Où gît votre sourire enfoui?** (Portugal - Frantzia, 2001) / Pedro Costa (Portugal), Thierry Lounas (Frantzia)

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Zinemaldia + Plus

**Irailak 9.** Donostia sariei egindako omenaldia: Javier Bardem

- **Huevos de oro / Golden Balls** (Espainia - Frantzia - Italia, 1993) / Bigas Luna (Espainia)

**Irailak 15.** Donostia sariei egindako omenaldia: Hayao Miyazaki

- **Tonari no Totoro / My Neighbor Totoro** (Japonia, 1988) / Hayao Miyazaki (Japonia)

**Irailak 16.** Donostia sariei egindako omenaldia: Víctor Erice

- **Alumbramiento** (Espainia, 2002) / Víctor Erice (Espainia) - Film laburra
- **La morte rouge** (Espainia, 2006) / Víctor Erice (Espainia) - Film ertaina
- **Vidros partidos** (Portugal, 2012) / Víctor Erice (Espainia) - Film ertaina




Benjamin Naishtatek *Historia del miedo* aurkeztu zuen Zinemaldia + Plus fokuan.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Zinemagileen arteko elkarrizketak




Carlota Peredak eta Alauda Ruiz de Azúak Zinemagileen arteko elkarrizketak jardueran parte hartu zuten.

*Zinemagileen arteko elkarrizketak* ikastaroaren bigarren edizioa egin da aurten Koldo Mitxelena kulturunean. Zinema-ikasleei eta zinemazaleei zuzenduta dago, eta zinemako profesionalek eman dute. Donostiako Zinemaldiaren urte osoko Z365 atalarekin eta Elías Querejeta Zine Eskolarekin batera antolatu da. Ikastaro honek film bat produzitu eta egiteko prozesuan ikusten ez diren alderdiak hobeto ulertzeko gakoak eman nahi dizkie zinemazaleei. *Zinemagileen elkarrizketa*k sorkuntza zinematografikoaren barruko historiaren berri ematen du elkarrizketa-formatu arin batean. Elkarrizketa guztien ideia nagusia da zinema lanbide kolektibo bat dela. Zinemagile bakoitzarekin batera harekin hainbat arlotan (muntaketa, interpretazioa, gidoia, ekoizpena...) kolaboratu ohi duen pertsona bat egongo da, edota beste zinemagile bat, belaunaldi berekoa dena edo abiapuntu edo kezka formal edo tematiko berberak dituena.

Lehen saioan (azaroaren 3an izan zen), Estibaliz Urresola, Irati Gorostidi eta Maider Fernández Iriarte aritu ziren elkarrizketan. Estibalitz, *Cuerdas* film laburra Cannesko Kritikarien Astean estreinatu eta Zabaltegi-Tabakalera sailean parte hartu ondoren, bere lehen film luzea bukatzen ari zen, *20.000 especies de abejas*, ondoren Berlinen eta Malagan aukeratua eta saritua. Irati Gorostidi egoiliarra izan da aurten Ikusmira Berriak programan eta, bertan, bere lehen lana egin du: *Anekumen*. Eta Maider Fernandezek, Ikusmira Berriaketik igaro ondoren, *Las letras de Jordi* bere lehen film luzea estreinatu zuen Donostia Zinemaldiko New Directors sailean eta egun, bere bigarren filma prestatzen ari da. Hiruak 2022ko Kimuaken egon ziren.

Azaroaren 22an, Albert Serra Ariadna Ribas eta Artur Tort bere azken lanetako muntatzaileekin aritu zenelkarrizketan. Besteak beste, azken Canneseko zinema-jaialdian eta Donostia Zinemaldiko Made in Spain sailean parte hartu zuen *Pacifiction / Tourment sur les îles* lanean aritu dira.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Diálogos de cineastas

2022ko azken saioan, abenduaren 13an, Mikel Gurrea zuzendari donostiarrak Laura Rubirola bere produktorea izan zuen mintzaide, eta *Suro* estreinako lana izan zuten hizpide (Fipresci saria, Euskal Zinemaren Irizar saria eta Euskal Gidoi Onenaren Saria lortu zituen Donostian).

Urtea hasteko, Fernando Franco eta errealizadorearen eta Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatu zen La consagración de la primavera bere azken filmeko protagonista diren Telmo Iruretaren eta Valèria Sorollaren arteko elkarrizketa izan genuen. Zuzendariaren eta interpretearen arteko baterako lanari buruzko gogoeta hori urtarrilaren 11n izan zen.

Muntaketak berriz ere hartu zuen protagonismoa otsailaren 16an Pilar Palomeroren eta Sofía Escudéren arteko elkarrizketarekin. Elkarrekin lan egin dute *Las niñas* filmean (film onenaren Goya saria) eta *La Maternal* filmean (Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorra Carla Quílezentzat).

Martxoaren 9an, 2022ko debut nabarmenenetako biren zuzendariak aritu ziren elkarrizketan; hots, Alauda Ruiz de Azúa (Cinco lobitos) eta Carlota Pereda (Cerdita). Biak igaro dira film laburretik film luzera eta biek estreinatu dituzten beren lehen lanak nazioarteko zinema-jaialdietan, Donostia Zinemaldiko Made in Spain eta Zabaltegi-Tabakalera sailetatik, hurrenez hurren, igaro baino lehen.

Orain dela gutxiko Espainiako zinemaren kolaborazio luze eta emankorrenetako bat izan zen apirilaren 13ko saioko protagonista: Alberto Rodríguez zuzendariarena eta Rafael Cobos gidoilariarena. Haiena da 2022ko Donostia Zinemaldiaren inaugurazioko filma: Modelo 77.

Bigarren edizioa ixteko, maiatzaren 26an, Aitor Arregi, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga euskal zinemagileek beren lan-eredu kooperatiboa eta plataforma baterako egin duten beren lehen telesailerako (Balenciaga) lana azaldu zituzten.

# 71. edizioko 71 irudi

Oharra: Memoria honen argazkiak honako argazkilari hauek egin dituzte: Alex Abril, Iker Azurmendi, Mikel Blasco, Pablo Cifuentes, Jorge Fuembuena, Gari Garaialde, Pablo Gómez, Ulises Gutiérrez, Nora Jauregui, Iñaki Luis eta Adrián Perea.



Dominic West aktorea, María Cristina hotelera iristean Donostia Zinemaldiaren 71. edizioaren inaugurazio-galan parte hartzeko.




Bideo honetan Hayao Miyazaki animaziozko zinemaren maisu japoniarrak eskerrak ematen dizkio Zinemaldiari, bere ibilbide osoaren omenez Donostia Saria emateagatik. Galaren ondoren, *Kimitachi wa do ikiru ka / The Boy and the Heron* bere azken lana eman zen, Europako estreinaldia gisa, lehiaz kanpoko inaugurazio-film gisa.




“Zinema-jaialdiak oso zirraragarriak dira, sorkuntza-leku bat non lehiaketa ez baita garrantzitsuena. Epaimahaikide guztiok zinemarekiko konpromisoak mugiarazten gaitu, eta espiritu horrexek gidatuko gaitu, hain zuzen. Eskerrik asko eta izan Zinemaldi zoriontsua”, adierazi zuen Claire Denis epaimahai ofizialeko buruan inaugurazio-ekitaldian.




Liang Ming, *Carefree Days* filmaren zuzendaria (New Directors): “Asko interesatzen zait gazteek nola egiten dieten aurre oztopoei, desioei eta, oro har, bizitzari”.




J..A. Bayona, *La sociedad de la nieve / Society of the Snow* filmaren zuzendaria (Perlak):  "Film hau filmatzea beste zinema beste modu batean egitea izan da, nolabaiteko askatasuna berreskuratuz eta istorioa egiaz blai egongo zen puntu batera eramanez".



Jonathan Glazer, *The Zone of Interest* filmaren zuzendaria (Perlak): "Jendeak arrotza edo urrunekoa den zerbait adierazteko erabiltzen du gaiztakeria hitza, baina gaiztakeriarik handiena barnean daramagu guztiok".



Paula Hernández, *El viento que arrasa / A Ravaging Wind* filmeko zuzendaria (Horizontes Latinos), Alfredo Castro, Almudena González eta Sergi López antzezleekin batera eserita: “Selva Almadaren liburuak niretzat berriak ziren beste mundu batzuetarako atea irekitzen zidan: landa-eremua eta erlijio-eremua”.




*Boonie Bears:* Abentura Historiaurrean filmaz (Ikastetxeak Belodromoan) eta sumendiei buruzko aurkezpen batez (Janire Prudencioren eskutik) gozatzeko prest dauden ikaslez betetako Belodromoaren irudia.




Ashmita Guha Neogi, *Sīlan* filmaren zuzendaria (Zabaltegi-Tabakalera), Shaz Mohammed argazki-zuzendariarekin eta Avantika Singh Desbouvries ekoizlearekin batera: “Euriak edozein emozio handiagotzen du, eta filmean, nolabait, bi anaien arteko hutsuneak betetzen ditu”.




Gema Juárez eta Paola Castillo ekoizleak *Mixtape* La Pampa dokumentalaren (Zabaltegi-Tabakalera) egile Andrés Di Tellarekin: “Argentinaren metafora bat naiz: nahasketa hutsa”.




“Gora begiradak eraldatzen laguntzen duen zinema!”, esan zuen Estibaliz Urresolak –(hirugarrena ezkerretik), *20.000 especies de abejas / 20,000 Species of Bees (20.000 erle espezie)* filmaren zuzendariak (Zinemira)– Sebastiane saria jasotzean..



Fernando Trueba eta Javier Mariscal, *They Shot the Piano Player / Dispararon al pianista* filmaren zuzendariak (Sail Ofiziala, emanaldi bereziak): “Dokumentala hitz egin besterik egiten ez zuten pertsonen segida hutsa bihurtu zen azkenean; animazioarekin, ordea, desagertutako pianista berreraiki ahal izan dugu”.




Christos Nikou, *Fingernails* filmarengatik (Sail Ofiziala) Fipresci Saria irabazi zuen zuzendaria: “Denok lortu nahi dugu maitasuna, baina ez dakigu zehazki zer den. Benetan instintiboa da, behar dugu eta sentitzen saiatzen gara, baina batzuetan mingarria ere bada. Baina filmarekin zera transmititu nahi nuen, maitasuna egunero landu behar dugun sentimendua dela”.




Isabella Eklöf zuzendaria, eskuinean, *Kalak* filmeko (Sail Ofiziala) antzezle Berda Larsen eta Emil Johnsenekin batera (Epaimahaiaren Sari Berezia eta argazki onenaren Epaimahaiaren Saria Nadim Carlsenentzat): “Asko gustatzen zait ikus-entzuleen itxaropenen aurka lan egitea, bizitza ez baita hain erraza eta garbia ikuspuntu dramatikotik”.




David Zonana, *Heroico / Heroic* filmaren zuzendaria (Horizontes Latinos), Michel Franco ekoizle eta zinemagilearekin batera: “Erakunde militarrak oso eragile garrantzitsuak dira Mexikoko indarkeriaren ekuazioan”.




Koriangelis Brawns eta Paul B. Preciado, *Orlando, mi biografía política / Orlando, My Political Biography* filmaren zuzendaria (Zabaltegi-Tabakalera): “Askotan alde batera uzten dugun egunerokotasun hori miresgarria dela erakutsi nahi nuen; horren adibide da subjektu politiko gisa existitzen garela”.



Nadia Tereszkiewicz eta Stéphanie Di Giusto, *Rosalie* filmaren aktore eta zuzendaria (Perlak):  “Desioari eta heriotzari buruzko filma da, eta hor datza benetako erromantizismoa, ezarritakoaren mugak gainditzen dituen maitasun horretan”.




Christine Vachon eta Pamela Koffler ekoizleak, *Past Lives* filmaren zuzendari Celine Songekin batera (Perlak): “Benetako maitasun bat islatu nahi nuen nik, zinemak sentimendu horrekin egin ohi duen idealizazioaz bestelako maitasun bat, hain justu. Batzuetan maitasuna maite dugun pertsonari entzutea da, besterik gabe”.



Màrius Sánchez eta Jordi Évole, *No me llame Ternera* filmaren zuzendariak (Made in Spain): “Josu Urrutikoetxea militante fanatikoa da. Etsigarria iruditu zitzaigun hizkuntza bakegileagorik ez erabiltzea, baina suposatzen dugu ez zuela bere jarrera zeharo aldatu nahi”.



Valeria Sarmiento, *El realismo socialista / Socialist Realism* filmaren zuzendarietako bat (Klasikoak), Raúl Ruizekin eta Chamila Rodriguez ekoizlearekin batera: “Txileko Alderdi Sozialistako kideek filma Raúlen bihurrikeria hutsa zela uste zuten”.




Euskadiko Orkestrak, SGAE Fundazioak eta Donostia Zinemaldiak Belodromoan eskainitako Kontzertua eta Emanaldia jardueraren irudia.




Carla Simón, 2023ko Espainiako Zinematografia Saria jasotzen: “Eskerrak eman nahi dizkiet bidea ireki diguten emakumezko zuzendariei. Eskertzen dut saria, orain arte emakumeek egindako filmen aitorpena eta etorkizunean iritsiko zaizkigunentzako konfiantzazko bultzada dela iruditzen baitzaigu. Beti bizi bedi zinema independentea”.



Raven Jackson, *All Dirt Roads Taste of Salt* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala), Adele Romanski eta María Altamirano ekoizleekin ibiltzen: “Natura eta une txikiak ospatzen dituzten emakumeak ditut erreferente. Une handiak ez ezik, oso intimoak eta sotilak diren momentuak ere badaude nire filmean”.




Irudiaren erdian, Euskal Zinemaren Irizar Sariaren irabazle Isabel Herguera, *El sueño de la sultana / Sultana’s Dream (20.000 erle espezie)* filmeko lantaldearekin batera (Sail Ofiziala): “Rokeya Hussein deskubritzeak asko kontzientziarazi nau nire egoeraz. Emakumeon artean oso ohikoa da konplizitatea, ditugun ezberdintasunetatik haratago elkartzen baikaitu”.




*Ex-Husbands* filmaren lantaldea (Sail Ofiziala), hala nola Miles Heizer, Griffin Dunne eta James Norton aktoreak eta Noah Pritzker zuzendaria: “Aita-semeen arteko harremanetan agertzen diren maskulinitate modu asko erakusten dira filmean”.




Pepe Lorente aktorea eta *La estrella azul / The Blue Star* filmeko (New Directors) zuzendari Javier Macipe, Gazteriaren TCM Sariaren eta Espainiako Lankidetza Sariaren irabazlea: “Mauricio Aznar rock-musikariak anaitasun-amets bat zuen Latinoamerikarekin, baina ezin izan zuen amets hori osatu, duela 23 urte hil baitzen. Gu amets hori betetzen saiatzen ari gara gaur egun, eta sari honen agerian uzten du bide onetik goazela. Estreinatzen denean ikustera joateko proposamena egiten dizuet, eta amets horretan parte har dezazuen. Gora herrien arteko anaitasuna!”




Tatiana Huezo, *El Eco / The Echo* dokumentalaren zuzendaria (Horizontes Latinos), Irati alabarekin eta Ernesto Pardo argazki-zuzendariarekin batera: “Bizitzarik txikiena –eguneroko bizitza– kontatzea izan da gauzarik zailena niretzat”.



Martín Benchimol, Horizontes Saria irabazi duen *El castillo / The Castle* filmaren zuzendaria (Horizontes Latinos), Alexia Caminos Olivo eta Justina Olivo antzezleekin batera: “Gure istorioa sistemaren kontraesan horri buruzkoa da: nola bizi daitekeen beheragoko klaseko norbait teorian ez dagozkion kondizioetan”.



Todd Haynes, *May December* filmaren zuzendaria (Perlak): “Ikus-entzuleen artean zalantza piztea gustatzen zait, zalantza-eremu batera eramatea; eremu horretan, hala, zuzendari gisa dudan esperientziak nire alde ere jokatzen du”.



Justine Triet, *Anatomie d’une chute / Anatomy of a Fall* filmaren zuzendaria (Perlak): “Ezinbesteak aldarrikatu behar dugu emakumeok bereziak garela sortzaile gisa, zailagoa egiten baitzaigu geure lana ikusaraztea. Emakumeoi ez zaigu barkatzen ohi anbizioak izatea”.



Berto Romero, *El otro lado / The Other Side* sailaren sortzailea (Belodromoa): “Sail honek berritasunen bat badakar, komediaren eta beldurraren arteko oreka da; izan ere, ideia hori modu apur bat arduragabean sartu zitzaidan buruan”.



Claudia Pinto Emperador eta Carme Elias aktorea, *Mientras seas tú / Mentre siguis tu / While You’re Still You* dokumentalaren zuzendaria eta protagonista (Made in Spain), hurrenez hurren: “Alzheimerraren aurka baino gehiago, memoriaren aldeko filma da”.



Martín Rejtman, *La práctica / The Practice* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala), Camila Hirane eta Esteban Bigliardi antzezleekin batera: "*La práctica* komedia beltza dela irakurri dut, baina niri ez zait iruditzen. Komedia modu zikinean lantzea gustatzen zait, ez amaiera zoriontsuarekin edo arrosa kolorez".




Cristi Puiu, *MMXX* lanaren zuzendaria (Sail Ofiziala): "Pandemiaren traumatik ihes egin beharrak eragin zuen filma sortzeko ideia, konfinamenduko –garai arraro horretako– istorioekin".




Joachim Lafosse, *Un silence / A Silence* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala), Emmanuelle Devos, Matthieu Galoux eta Jeanne Cherhalekin –filmeko aktoreetako zenbaitzuekin– batera: “Ez gara begiztatik aterako baldin eta konplizetzat hartzen badugu hitz egin ezin duelako isiltzen den jendea. Isiltasunean ez dugu konplizitaterik ikusi behar. Arazoa hori baino korapilatsuagoa da”.



Rocío Jadue Zarhi ekoizlea, Maite Alberdiri –*La memoria infinita / The Eternal Memory* (Perlak) filmeko zuzendariari– begira: “Baliteke Augustoren oroitzapenak ezabatuz joatea, baina Txileko diktaduran hainbeste lagun hil eta desagertu izanak eragin zizkion sentsazioetatik ezin izan zen inoiz askatu”.




Mariano Cohn eta Gastón Duprat, *Nada* sailaren zuzendariak (Culinary Zinema): “Brandoni eta De Nirorengan pentsatuz idatzi genuen istorioa, errealitatearen eta fikzioaren arteko ispilu-joko bat erabiliz”.




Quim Casas Zinemaldiko Hautespen Batzordeko kidea eta Daniel Aguilar itzultzailea, Inuhiko Yomotari entzuten; 71. edizioko atzerabegirakoaren liburua idatzi zuen Yomotak: “Hiroshi Teshigahara absentzia filmatzetik presentzia atzematea interesatzen zitzaion zinemagile izatera igaro zen”.



Nesten –Donostia Zinemaldiko zinema-ikasleen nazioarteko film laburren lehiaketan– parte hartu duten ikasleen familia-argazkia.



María Alché eta Benjamín Naishtat zuzendariak, gidoi onenaren Epaimahaiaren Sariaren irabazleak *Puan* filmarengatik (Sail Ofiziala); filmeko protagonista Marcelo Subiotto antzezleak (zuriz, Mara Bestelli eta eskuinean dagoen Leonardo Sbaragliarekin batera) Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi zuen: "Komedia filosofikoa da, bi munduak batzen dituelako. Barrea gauza basati eta oso sakona da, baina hunkigarria izatea eta beste loditasun bat izatea ere nahi genuen".




Isabel Coixet (ezkerretik bigarrena) *Un amor* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala), Laia Costa eta Hovik Keuchkerian (Taldeko Interpretazio Onenaren Zilarrezko Maskorra) aktoreekin: “Barkatu neure lan bat aipatzea erreferentzia gisa, baina nire filmetako batean hau esaten du norbaitek: ‘Dena ulertzeak burua nagitzen du’. Ez dugu buru nagirik nahi!”



Matteo Garrone zinemagilea eta Seydou Sarr eta Moustapha Fall, *Io capitano / I’m Captain* filmeko protagonistak (Perlak; Europako film onenaren Publikoaren Sariaren irabazlea): “Gazte etorkinek gaur egungo epika gorpuzten dute niretzat”.




Mads Mikkelsen, *Bastarden / The Promised Land* filmeko protagonista (Perlak).




Paco Sagarzazu aktorea, Zinemira Saria jasotzen Ane Gabarain antzezlearen eskutik.



Kitty Green, *The Royal Hotel* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala): “Emakumeen aurkako indarkeria nahikoa ikusi dugu zinema-pantailan. Nik beste zerbait nahi nuen egin. Emakumeak indartsuak direla erakutsi nahi nuen”.




*O corno / The Rye Horn* (Sail Ofiziala; Urrezko Maskorraren irabazlea) filmaren zuzendari Jaione Camborda eta filmeko lantaldea: “Emakumezko zuzendari espainiarrek zuzendutako hiru film lehian egotea ospatzeko zerbait da. Gaur egun emakumeen film on gehiago ateratzen dira, jakina, lehen ez zigutelako uzten filmak zuzentzen”.



Xavier Legrand, *Le successeur / The Successor* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala), filmaren talde artistikoarekin batera: “Oraingoan gizonen indarkeriaz hitz egin dut. Patriarkatuak, emakumeak ez ezik, seme-alabak, anai-arrebak eta abarrak ere zapaltzen ditu. Gure historia aitaren mamu astunarekin nola idazten dugun jakin nahi izan dut”.




Ion de Sosa, *Mamántula* lanaren zuzendaria (Zabaltegi-Tabakalera): «Gustatzen zaizkidan filmetan bada izendatzaile komun bat: egileek zinemari dioten maitasuna. Nik maitasun zinemazale hori transmititzen duten filmak egiteko ildo horretan jarraitu nahi nuke”.



Jessica Chastain, *Memory* filmeko protagonista (Perlak): “Oro har, nire pertsonaiek bizi dituzten esperientziak nireak izango balira bezala hartzeko joera izaten dut; pertsonaiekin guztiekin hari ikusezinak ehotzen ditut azkenean, eta badakit hari horiek bizitza osoan zehar izango ditudala”.



Éléonore Saintagnan, *Camping du Lac* filmaren zuzendaria (Zabaltegi-Tabakalera): “Film bakoitza animalia batean ardazten dut. Adibidez, aurrekoan ardia izan zen, eta oraingoan, berriz, arraina. Animaliekin harremanetan dauden pertsonak nola bizi diren eta haiekin nola elkarreragiten dugun erakustea interesatzen zait”.




Craig Gillespie, *Dumb Money* filmaren zuzendaria (Perlak): “*American Dream* delakoa eta haren planteamendua engainu hutsak dira. Herritarren %10ek arrakasta profesionala du, eta gainerako % 90ak uste du arrakasta lor dezakeela. Eta gehiengo handi hori interesatzen zait niri zinemagile gisa”.



Makurtuta, laugarrena eskuinetik, Josu Martinez, *Bizkarsoro* (Zinemira) eta *Mirande, film bat egiteko zirriborroa* (Zinemira) lanen zuzendaria: “Ez dago hizkuntza ahul edo indartsurik, botere-harremanak baizik”.




Santiago Auserón, *Semilla del son / Seed of the Son* filmeko protagonista (Made in Spain), JuanMa Betancort zuzendariarekin batera: “Kubako son-musikarien prestasun eta abegikortasun musikal ospetsua gorabehera, batek hiru hamarkada behar ditu Kuba –laborategi txundigarri hori– ondo ulertzeko eta barneratzeko, beltzaren eta zuriaren arteko toni den-denak daudelako bertan”.



Ping-Wen Wang eta Tzu-Hui Peng, Zuzendaritza Onenaren Zilarrezko Maskorraren irabazleak *Chun xing / A Journey* filmarengatik (Sail Ofiziala): “Familia eta maitasuna dira filmaren gai nagusiak, baina atzean utzi nahi ez ditugun sentimendu eta emozioei eusteko ideia ere bai”.




Robin Campillo zuzendaria, *L'île rouge / Red Island* filmaren (Sail Ofiziala) Quim Gutiérrez eta Nadia Tereszkiewicz aktoreekin batera: "Umetan Madagaskarreko base militar batean bizi nintzen. Kolonialismoa maitagarrien ipuin-ilusio baten antzeko zerbait zen, eta horren atzean uharteko indigenen aurkako indarkeria zegoen".



C. Tangana, *Esta ambición desmedida / This Excessive Ambition* dokumentalaren protagonista (Belodromoa): "Beste dokumental bat nahi nuen nik; gogorra izan da neure burua ikustea, zoritxarrez ni horrelakoa bainaiz: kontrolarekin obsesionatuta nago sormenari dagokionez; alabaina, dokumentalak badu gustatzen zaidan zerbait".




Makurtuta, erdian, Fermin Muguruza, *Bidasoa 2018-2023* dokumentalaren zuzendaria (Zinemira): “Muga batean jaio nintzen ni, horregatik gorroto ditut”.



Kei Chika-Ura, *Great Absence* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala), Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorraren irabazle Tatsuya Fuji aktorearekin batera: “Japonia dementzia-indize handiena duen herrialde garatuetako bat da. Halaber, japoniarron bizi-itxaropena igotzen ari denez, nire herrialdean arazo sozialtzat hartzen da hori”.



Javier Ambrossi eta Javier Calvo, *La Mesías* sailaren zuzendariak (Sail Ofiziala, lehiaz kanpo), aktoreekin batera: “Gazteentzako egungo telesailek akats bat egin ohi dute: gazteen itxura hartu nahi duten adineko pertsonenak dira. Gu zaharren itxura hartu nahi duten pertsona gazteak gara”.



Irudiaren erdian, beltzez, Ladj Ly, *Bâtiment 5 / Les indésirables* filmaren zuzendaria: “Ni 50 nazionalitatetako familiak zituen etxebizitza-blokeetan hazi naiz, eta inoiz ez da bizikidetza-arazorik izan. Mestizajea ez da arazoa, konponbidea baizik”.



Juliette Binoche aktorea, *La passion de Dodin Bouffant / The Pot au Feu* filmaren (Culinary Zinema Film Onenaren Sariaren irabazlea) zuzendari Tran Anh Hungekin batera: “Mahaia oso leku berezia da niretzat komunikatzeko, entzuteko, partekatzeko eta elkarri eskerrak emateko”.




Álvaro Longoria, *La vida de Brianeitor* filmaren zuzendaria (Made in Spain), dokumentaleko protagonista Brian Albaceterekin batera: “Uste dut filma lagungarria izango zaigula boomerroi sare sozialak beste ikuspegi batetik ikusten, deabrutu ordez”.




*Go!azen* sailaren (Belodromoa) hamargarren denboraldiko estreinaldirako sarrerak denbora errekorrean agortu ziren.



Mercedes Moncada, *Hormigas perplejas / Perplexed Ants* (Made in Spain) filmaren zuzendaria: “Lan-prekariotasuna pertsonon gorputz fisikoetan, hortzetan, begiradetan eta abarretan islatzen da”.




Víctor Erice Donostia Saria jasotzen Victoria Eugenia Antzokian: “Nik zinemaren esperientzia publikoa aldarrikatzen dut zinemaren ekonomian nagusi diren indarren aurrean, gure tresna teknologikoekin etxeko txoko txiki batean geratzea nahi baitute indar horiek”.



José Coronado, Helena Miquel, Ana Torrent, Mario Pardo, Petra Martínez, Michel Gaztanbide eta María León ordenagailu eramangarri batean ikusten Víctor Ericeren mintzaldia *Cerrar los ojos / Close Your Eyes* filmaren prentsaurrekoan (Donostia Saria Emanaldia): “Ez diot konfiantzarik kondaira epikoari, eta *Cerrar los ojos* testamentu-filma delako ideiari aurre egiten diot. Hori onartuko banu, nire hurrengo urratsa argizari-museoan, erretiratuta edo hilerrian amaitzea izango litzateke”.




Thomas Lilti zuzendaria, bigarrena ezkerraldetik, William Lebghil, Vincent Lacoste eta François Cluzet *Un métier sérieux / A Real Job* filmeko antzezleekin batera (Sail Ofiziala Lehiaz Kanpoko Emanaldi Bereziak): “13 edo 14 urte nituela, matematika-irakasle batek ikusarazi zidan irakasleak ez direla etsaiak, aliatuak baizik. Irakastea lotura afektibo bat ehuntzea da, truke bat ezartzea”.




James Marsh zuzendaria, irudiaren erdian, *Dance First* (Sail Ofiziala, amaierako filma lehiaz kanpo) laneko protagonistekin (Gabriel Byrne eta Sandrine Bonnaire): “Askatzailea izan da Samuel Becketten bizitzako bineta txikietatik abiatuta haren biografia espekulatibo eta subertsibo hau egitea”.




Erik Messerschmidt argazki-zuzendariak David Fincherren *The Killer* aurkeztu zuen, edizio honetako Film Sorpresa.



Claire Denis Jaione Cambordari Urrezko Maskorra ematen *O corno / The Rye Horn* filmarengatik (Sail Ofiziala): “Zein garrantzitsuak diren erreferenteak! Bidea ireki eta argitu ziguten emakume horiek. Sari hau etortzeke dauden eta hurrengoetarako erreferente izango diren emakumezko zinemagile guztiekin partekatu nahi dut”.




Donostia Zinemaldiaren 71. edizioko irabazleen familia-argazkia. Hurrengo edizioa 2024ko irailaren 20tik 28ra egingo da.



**Selfiak:** Dominic West (1), Griffin Dune (2), Jessica Chastain (3), Fan Bingbing (4), Juliette Binoche (5), Mads Mikkelsen (6), Emmanuelle Devos (7), C. Tangana (8) eta Gabriel Byrne (9).

Babesle Ofiziala - Patrocinador Oficial - Official Sponsor

Media Partner

Laguntzaile Ofizialak - Colaboradores Oficiales - Official Collaborators